

BIZKAIA EKINEZ EGINA



UNAI REMENTERIA

BIZKAIKO AHALDUN
NAGUSIRAKO HAUTAGAIA

2015-2019
LEGEINTZALDIRAKO
PROGRAMA



eaj-pnv.eus

HACER CRECER **EUSKADI** HAZI ARAZI



2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO PROGRAMA

BIZKAIA HAZI ARAZI

1# Aurkezpena

2# Gure diagnostikoa.
Bizkairako erronkak.
Guk nahi dugun Bizkaia

3# Gure Bizkairako programa

4# Talde trebatua, zintzoa eta arduratsua



1# AURKEZPENA

Hilabete askoko lana duzu esku artean: hainbat ordu eman ditugu bileretan, gogoetak egiten, eztabaidatzen, ideiak trukatzeko, zalantzak argitzen, zirriborroak egiten, alderatzen, deiak eta zenbaki asko egiten, kalkuluak egiten, aurreikuspenak... Baina ilusio handiko hilabeteak izan dira. Bai, ilusioa. Bizkaia hobea eta modernoagoa nahi dugulako. Munduarekin lotutako dagoen Bizkaia bat izateko ilusioa dugulako. Gizarteari ilusioz beteriko proiektu batekin itxaropena eman nahi diogulako. Ilusioa. Ilusio tonak. Itxaropenez, kolorez, bizitzaz, irribarrez beteriko ametsak. Etorkizuna izateko, erronkei aurre egiteko, elkarrekin lan egiteko, eragozpenak gainditzeko eta hain kaltegarria izan den eta oraindik izaten ari den krisi madarikatu hori behin betiko atzean uzteko gogoia.

Bihotzez uste dut txarrena dagoeneko igaro dela, baina jakin behar dugu berreskuratzea ez dela erraza izango. Eta batez ere oso kontuan hartu behar dugu esfortzu handiarekin eta gauza beste era batera egiten bakarrik joango garela aurrera. Gu denok ongi egon arte Bizkaia ere ez da ongi egongo. Lan handia dugu oraindik egiteko. Lan zaila, hala ere, merezi du, Bizkaia eta Bizkaiko pertsonak beti merezi dutelako. Askok. Beraz, erabakietan apustu egitea eta arriskatzea dagokigu. Hori da gobernatzea. Eta gizarteak beste parametro batzuk kontuan hartuz egitea eskatzen digu: hurbiltasun, gardentasun eta herritarren partaidetza handiagoarekin eta burokrrazia gutxiagoarekin.

Zuzentzeko ohore handia dudan proiektu honek, EAJk bakarrik eskain dezakeen zerbaitei eskaintzen dio Bizkaia: gogo berriak eta belaunaldi politiko berri baten aldaketa eta haren esperientzia guztia, gure alderdian 120 urteko historian beti nagusitu diren bermea eta egonkortasuna. Balio segurua gara. Erakutsi dugu eta erakusten jarraitzen dugu. Bizkaia moderno hau, solidarioa dena, bere gizarte-sarearekin, Metroarekin, Bizkaibusarekin harro dagoena, abiadura handiko trenaren zain dagoena, herritarren, gizarte-eragileen, enpresen eta erakundearen elkarlanaren ondorioz sortu da, eta horiek guztiek, esfortzuak eta lankidetzak duen garrantzia erakutsi dute. Eta bilakaera hori EAJ buru izan den foru-gobernuekin gertatu da. Gobernu horiek gure lurraldea zuzentzeko gai izan dira, eta gaur egun dugun bizitza-kalitate maila ona haiei zor diegu. Legatu horri eusteko eta hobetzeko konpromisoa gure gain hartuko dugu.

Hori da Bizkaiaarekin dugun konpromisoa. Lurralde honetan bizi diren gizon eta emakume guztiekin dugun konpromiso pertsonala eta alderdiaren konpromisoa ere bai. Hori da gizartearekin dugun kontratua. Gainera, kontratu hori hobetu egin dugu EAJtik kanpoko 1.152 bizkaitarrek BizkaiaGO ekimenean parte hartuz egindako 900 ekarpen baino gehiagorekin. Herritarrek parte hartzeko sortu genuen ekimena da. Hori da amesten dugun, nahi dugun, eta hurrengoei proposatzen diegun Bizkaia. Pertsona bati begiratzen dien Bizkaia, enplegu gehiagorekin, ekonomia-jarduera handiagoarekin, munduari irekiago, Europan puntako gizarte-sistema bati eusteko gai dena, kalitatezko zerbitzu publikoak eskain ditzakeena, denek eskura dauden kultura eta aisialdia, iraunkorra eta segurua dena, eta gero eta hobeto osatuta dagoena, eleanitzagoa. Bizkaia horretan amesten dut. Eta zuk?

Eskerrik asko zure konfiantzarengatik eta ametsak partekatzeagatik.

Unai Rementeria Maiz
Bizkaiko Ahalduen Nagusirako hautagaia EAJrekin



2# GURE DIAGNOSTIKOA. BIZKAIRAKO ERRONKAK. GUK NAHI DUGUN BIZKAIA

GURE DIAGNOSTIKOA: MANTENDU ETA INDARTU BEHAR DITUGUN ALDERDI POSITIBO GARRANTZITSUAK DITUGU

EAJk Bizkaiko Foru Aldundian egindako kudeaketari esker, **sendotasun garrantzitsuak** dituen lurraldea garatu dugu, eta sendotasun horiek ezinbestekoak dira gure orainerako, eta gure etorkizuna **finkatzeko**:

- **Prestatuta dauden eta balioak dituzten gizonak eta emakumeak ditugu**, gizarte moderno, prestatu eta zorrotza osatzen dutenak.
- Giza garapeneko munduko indizerik altuenetako bat dugu. Bizi-itzaropena, hezkuntza-maila eta errenta erabilgarria neurtzen dituen Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP) egindako adierazlearen arabera, Bizkaia Herbehereen eta Suitzaren maila berean dago, Norvegiaren eta Australiaren atzetik bakarrik.
- Enpresa garrantzitsuen egoitza gara (horietako batzuk mundu mailakoak dira). Enpresa horiek, enplegua sortzeaz gain, diru fiskalen iturri oso garrantzitsuak dira Bizkairako eta Euskadi osorako. Horrez gain, erreferentzia-zentro garrantzitsua gara zenbait sektoretan, hala nola automobilgintzan, aeronautikan eta energian, eta gero eta gehiago garatzeko bidean dauden sektore berrietan, hala nola biozientzietan eta osasunean, IKTetan eta industria sortzaile eta kulturaletan.
- Bestalde, sistema zientifiko-teknologiko bikaina dugu, Bizkaiko enpresen garapenerako funtsezkoak eta oso garrantzitsuak diren unibertsitateekin, ikerketa-zentroekin eta teknologia-zentroekin.
- Gero eta irekiagoa eta nazioartekotuagoa den ekonomia da Bizkaia, eta krisia badu ere, gure egitura ekonomikoak hobera egin du nazioarteko testuinguruan. Gure esportazioek % 54 egin dute gora azken 5 urteetan. Bizkaiko ia 4.000 enpresek esportatu zuten 2014. urtean, 2009. urtean baino mila enpresa gehiagok.
- Erakargarritasun turistikoa garrantzitsua dugu. Urtero 1.200.000 bisitari inguru izaten ditugu, eta bisitari horietatik, 10etik 4 nazioarteko turistak dira. Turismoak dagoeneko gure BPGren % 5 ekartzen du. Bilboren aktibo handia dugu, nazioarteko irudi bikaina duen hiri moduan, urte hauetan izandako aldaketarengatik, modernotasunarengatik eta kultura-eskaintzarengatik. Halaber, bere turismo-baliabide garrantzitsu batzuk ere baditugu Bizkaiko eskualde guztietan zehar.
- Kanpora ateratzeko nahiz barrutik ibiltzeko lotura bikainak ditugu, garraio-sistema publiko oso eta eraginkorra barne. Gure aireportuak 30 lotura zuzen ditu eta urtero 4 milioi bisitari inguru jasotzen ditu. Gure garraio-sistema publikoek erabiltzaileen oso iritzi onak jasotzen dituzte. Lurraldetik Metroz, Bizkaibus autobusez, trenez, tranbiaz eta itxaroten ari garen abiadura handiko trenaz joan gaitzezke. Eta ezin dugu aipatu gabe utzi gure ekonomiarako eragile handia den Bilboko Portua.
- Ingurumenaren arloan erreferentia gara, Estatuko "Alemania txikia". Biztanleen % 100ek hondakinen gaikako bilketa egin dezakete, eta % 96k saneamendu-sistemetara eta urak arazteko sistemetarako sarbidea dute. Gure birziklatze-mailak Estatuko handienak dira eta sortzen ditugun hondakinen % 90 aprobetxatzen dugu.

- Gizarte-zerbitzuen arloan ere erreferenteak gara. 15.000 plaza ditugu egoitza-zentroetan; horietatik, 10.500 adinekoentzat dira. Bestalde, desgaitasunen bat duten pertsonentzako plaza eskaintza ere esanguratsua da (1.500). Gizartean baztertuta dauden pertsonentzat, adingabeentzat eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat ere plazak ditugu. Seigarren tokian gaude Alemania eta Luxenburgorekin batera zahartze aktiboko indizean Europar Batasuneko 28 herrialdeen artean. Horrez gain, funtsezko tresnak ditugu laguntzeko eta gizarteratzeko, hala nola diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE).
- Gizarte- eta elkarte-egitura aberatsa dugu. Milaka elkarte, fundazio eta irabazi-asmorik gabeko erakunde, herritarrek gizarte-bizitzan parte har dezaten. Horrez gain, bide ezin hobeak dira norberaren garapenerako, kultura, hezkuntza eta kirol arloko eta osasuna sustatzeko jardueren bidez. Baita Bizkaiko biztanleentzat erabilgarriak diren zerbitzuak emateko ere.
- Oso emaitza onak lortzen ditugu gardentasunari erreparatzen badiogu. Nazioarteko Gardentasunak egindako Probintzia Diputazioen Gardentasunaren azken indizean 97,5 puntu lortu genituen, 100etik.
- Ekonomia- eta finantza-krisiak bilketan eragina izan badu ere, finantza-osasun bikaina dugu, eta horrela aitortu dute nazioarteko kalifikazio-agentzia nagusiek, izan ere, Estatuari baino nota askoz ere hobeak ematen dizkigute. Finantzazioaz baliatu gara Bizkairako inbertsio estrategikoak egin ahal izateko, baina etorkizuneko belaunaldiak arriskuan jarri gabe.
- Emaitza garrantzitsuak lortu ditugu iruzur fiskalaren kontrako borrokan. Azken hamar urteetan ia 3.000 milioi euroko iruzur fiskala azaleratu da. Esparru horretan erreferentea izaten jarraituko dugu.
- Denon esku dauden kultura-programazio eta -azpiegiturak ditugu, hala nola mundu osoan ezaguna den Guggenheim museoa.
- Gure hizkuntza dugu, euskara, aberastasun izugarria ematen diguna eta dagoen modu bakarrean zaindu behar duguna: erabiliz.
- Kirola eta ohitura osasungarriak balio bihurtu dituen gizarte batean bizi gara, eta erraztasun guztiak eman behar dizkiogu oraindik kirolzaleagoa eta osasungarriagoa izan dadin.
- Bizkaia kohesionatuta dagoen lurraldea da, ez du eskualderik, udalerririk edo lehen edo bigarren mailako pertsonarik. Lurralde osoari eta pertsona guztiei bermatzen dizkie oinarritzko zerbitzuak.

ALDI BEREAN LANEAN JARRAITU BEHAR DUGU OSO ERRONKA GARRANTZITSUEI AURRE EGITEKO

- Ez dago zalantzarik konpondu beharreko erronka nagusia langabeziarena dela. Ekonomia- eta finantza-krisiak eraikuntzan batik bat izan du eragina: hiru enpresetatik bat desagertu da sektore horretan. Horrez gain, eraikuntza-jardueretan eta industria-sektorean ere izan du eragina. Industria-sektorean esaterako, krisiaren aurretik zeuden sei enpresetatik bat galdu dugu. Horren ondorioz, langabeziak oro har gora egin du eta gazteengan izan du eraginik handiena. Korrelazio handia dago prestakuntza-mailaren eta langabezia-mailaren artean. Horrela, nabarmen handitzen dira lan egiteko aukerak kualifikazioa handitzen den heinean. Beraz, hasierako trebakuntza eta ikaskuntza iraunkorra dira epe luzerako enplegu-bermerik handienak. Horrenbestez, hori da sustatu behar dugun estrategia argietako bat.
- Industrian genuen nabarmentasuna berreskuratu behar dugu, industriak kalitatezko enpleguak sortzen dituelako eta bideratutako enpleguak ugaritzen dituelako. Industria izan da krisiari hobeto aurre egiten lagundu gaituena, eta XXI. mendera egokitutako industria izango da etorkizun oparoago batera eramango gaituena.

- Bizkaian berezkoa izan den izaera ekintzailea berreskuratu behar dugu. Pertsona ekintzaile gehiago behar ditugu, eta laguntza-tresnak indartu, pertsona horien ekimenak enplegu berriak sor ditzan.
- Enpresa-egitura aberatsa dugu, baina gure enpresak besteen aldean txikiak dira. Bizkaiko enpresen % 93a ETEak dira. Enpresen arteko partzuergoak eta bat-egiteak bultzatu behar ditugu, tamaina handitzeko eta nazioartean lehiatu ahal izateko.
- Aurre egin beharko diogun erronkarik handienetakoa bat zahartzearena da. Izan ere, 2020. urtean bizi-itxaropena 90 urtetik hurbil egongo da emakumeen kasuan, eta 85 urtetik hurbil gizonen kasuan. Beraz, Bizkaiko biztanleen % 4 85 urtetik gorakoa izango da. Gertaera positibo horrek (bizi-itxaropen handiagoa eta gure adinekoren bizi-kalitate hobea) errealitate berri horrek dakartzan mota guztietako laguntza-zerbitzuak (osasun arlokoak, laguntzazkoak, zahartze aktiboari laguntzearenak) antolatzea ere eskatzen du.
- Aurreko alderdi horrekin lotuta, gure zerbitzu-sistemaren eta gizarte-laguntzen sistemaren iraunkortasuna nabarmentzen jarraitu behar dugu. Gizarte-zerbitzuek gizarte baten duintasun-lerroa bereizten dute, baina kontuan hartu behar dugu aurre egin beharko diogun errealitatea, izan ere, hurrengo 15 urteetan, bilakaera demografikoa dela eta gizarte-zerbitzuen arreta beharko duen pertsona kopurua bikoiztuko delako. Horrez gain, eskaera handiagoa izango dute, gizarte- eta familia-aldaketekin pertsonen arretaren eta zainketaren erantzukizuna Administrazioaren esku uzten ari delako gero eta gehiago. Horretarako, beste bi lerro osagarrietan lan egin behar dugu:
 - Baliabideak optimizatzea, pertsona gehiago artatu ahal izateko. Eraginkortasuna handitu behar dugu, arrazoizko kostuetara heltzeko.
 - Gizarte-laguntzen gaineko kontrola hobetzea. Bestalde, ezin dugu iruzur fiskala onartu. Bizkaia ezin du iruzur fiskala onartu.
- Beste esparru batzuetan aurrerapen nabarmenak ere egon dira, eta horietan ere lanean jarraitu behar dugu. Horietako bat euskararen erabilera da. Elkar zoriondu behar dugu Bizkaia inoiz baino euskaldunagoa delako (biztanleen % 51 euskalduna edo ia euskalduna da, eskualdeen artean alde handia badaude ere), baina oraindik bide luzea geratzen da gizarte-erabileran aurrera egiteko. Genero-berdintasunaren esparruan egoera antzekoa da, aurrerapenak esanguratsuak izan arren, oraindik ez direlako nahikoak.
- Agian erronka horiek guztiak biltzen dituen erronka handia gure gaitasun fiskala hobetzea da, gure ongizate gizarte-babes mailari eusteko. Horretarako, bi lerro osagarrietan lan egin beharko dugu:
 - Ditugun enpresa zaintzea eta enpresa berriak erakartzea. Izan ere, ezin dugu ahaztu Bizkaiko enpresek Bizkaiko zerga-bilketaren hamar eurotatik sei ekartzen dituztela zuzenean (Sozietateen gaineko Zergaren eta BEZaren bidez funtsean), eta horrez gain, enplegua ere sortzen dutela.
 - Iruzur fiskalaren kontra erabakitasunez borrokatzen jarraitzea. Iruzur egindako euro bakoitza gizarte-politikekarako erabil dezakegun euro bat gutxiago da.
- Modernoagoa, gardenagoa eta hurbilagoa den administrazio baten nahitaezko erronka.
- Eta administrazio apalagoa herritarrekiko tratuan, burokrazia murrizten duena eta teknologia berriek ematen dituzten aukeretan gehiago oinarritzen dena.
- Erronka bat baino gehiago, eutsi behar diogun betebeharra da, eta herri moduan ditugun ezaugarriak sustatu behar ditugu, kultura-politika iraunkor, aktibo eta munduari irekita dagoen politika baten bidez.
- Bizkaia erreferentea da hondakinen tratamenduan eta ingurumen-politikan, eta 2020 Europa estrategia (berotegi-efektuko gas-igorpenak % 20 murriztea, energia berriztagarrien erabilera % 20 handitzea eta eraginkortasun energetikoa % 20 handitzea) betetzeko urratsak ematen jarraitu behar du.
- Eta, azkenik, jarduera politikoa normalizatzen laguntzeko eta zerbitzu publikoak merezi dituen duintasuna eta errespetua kudeaketa garbi eta profesionalaren bidez besteei itzultzeko erronka.

GUK NAHI DUGUN BIZKAIA.

- 1# Bizkaia, **NAZIOARTEKOA**: Mundua gure aukera da. Bizkairako aukerak bilatzera atera behar dugu, eta Bizkaian egindako produktuak saldu behar ditugu. Negozio-aukerak maila orokorrean sortzen dira. Aukera orokorreki etekina ateratzeko prest egon behar dugu. Mundu globalizatu batean aurrean jarrera adeitsua eta defentsazko jarrera hartzea izango litzateke gure hutsegiterik txarrena.
- 2# Bizkaia, **AUKEREN LURRALDEA**: Bizkaia erakargarria behar dugu, enpresen agendan eta nazioarteko talentuaren barruan dagoena. Kanpoko bultzada horrekin, eta gure herritarren eta enpresen berezko izaera ekintzailearekin, enplegu gehiago eta oparotasun handiagoa ekartzen dituzten aukerak sor ditzakegu. Alderdi horiek funtsezkoak dira berdintasun handiagoa, kalitatezko zerbitzu publikoak, kultura, aisialdia eta bestelakoak lortzen dituzten gizarte-zerbitzuak izan ahal izateko.
- 3# Bizkaia **EKINTZAILEA, BERRITZAILEA ETA SORTZAILEA**: Tradizioz izan dugun izaera ekintzailea berreskuratu behar dugu. Sormenaren, esfortzuaren, berrikuntzaren eta enpresa-ekimenaren balioak barneratu eta garatu behar ditugu hezkuntza- eta gizarte-esparru guztietan. Eta Bizkaian ekiten dutenei lagundu eta goraipatu.
- 4# Bizkaia **INDUSTRIALA ETA LEHIAKORRA**: Lehiakortasuna inoiz amaitzen ez den bidaia da. Lurralde bat lehiakorra da bere enpresak (Bizkaiko ekonomiaren arimak direnak), pertsonak eta erakundeak ere lehiakorrek badira. Lehiakorrek izatea ez da prezioak eta soldatak jaitea; balio erantsia eskaintzea da. Industria aurreratuak eta XXI. mendeko fabrikak gure berehalako etorkizunaren barruan egon behar dute.
- 5# Bizkaia **KUALIFIKATUA**: Prestakuntza funtsezkoa da pertsona baten garapenean, eta etorkizuna duen gizarte bat prestatuta dagoen herritarren bidez bakarrik eraiki daiteke. Ezagutzaren gizartean bizi gara, eta horrek esan nahi du ikaskuntza iraunkorraren balioa barneratu behar dugula. Egiteko hori guztioi dagokigu: herritarrei, enpresei, gizarte-eragileei eta Administrazioari berari. Ezin dugu utzi prestakuntza faltak egiturazko langabezia eta gure herritar askoren gizarte-bazterketa ekartzea.
- 6# Bizkaia **MODERNOA**: Teknologiaren balioari etekina atera behar diogu. Teknologia Aldundi ireki baten euskarri moduan, non herritarren partaidetza elementu estrategikoa baita, Bizkaia guztion artean hobe dezagun. Teknologia informazioa eta zerbitzu publikoak eskuratzeko bideratzaile moduan. Gure adinekoen bizitza-kalitatearen zerbitzura dagoen teknologia. Kudeaketa publiko eta pribatua emankorrakoak izaten laguntzen duen teknologia. Teknologia, enpresa eta enplegu berriak sortzeko aukera gisa. Baina aldi berean “eten digitala” gainditu behar dugu, pertsona guztiek izan ditzaten teknologiaren onurak.
- 7# Bizkaia **KOHESIONATUTA, INKLUSIBOA ETA SOLIDARIOA**: Ezin da bizkaitarrik kanpoan geratu. Lan handiagoa egin behar dugu pertsona guztiek bizitza duina izan dezaten. Foru Aldundiaz gain guk ere solidarioak izan behar dugu. Ezin da egon lehen edo bigarren mailako eskualde edo udalerririk; are gutxiago lehen edo bigarren mailako pertsonarik.
- 8# Bizkaia **BIDEZHOA**: Gehien behar dituzten pertsonentzako baliabide publikoei lehentasuna ematen dien Bizkaia.

- 9#** Bizkaia **GAZTEA**: Gizartea gero eta zaharragoa denez, gure gazteek aurrera egin behar dute. Hoberen prestatuta dagoen gure belaunaldiak Bizkaiak behar dugu aldaketa ekonomiko eta soziala zuzendu behar du. Parte-hartze handiagoa izanez eta bere ezagutza eta gure gizartearen zerbitzura dauden solidaritate eta zuzentasun balioak ekarriz.
- 10#** Bizkaia **BERDEA**: Urrezko hiru arauen (murriztu, berrerabili eta birziklatu) zirkulu birtuosoan aurrera jarraitu behar dugu, bi ikuspegitatik: batetik, lurralde berde batek ekartzen duen bizi-kalitatearen ikuspegitik; bestetik, ekonomiaren ikuspegitik. Izan ere, ingurumenaren arloko arautegiak eta politika zorrotzak eragileak izan daitezke berrikuntzarako bidean, enpresen gaitasun lehiakorrari lagunduz eta “ekonomia berdea” delakoa garatuz.
- 11#** Bizkaia **KULTURAREN LURRALDEA**: Kultura-jardueraren bidez neurtzen da gizarte baten bizitasun kolektiboa. Bizkaiak bere kultura-eskaintza handiarekin jarraitu behar du, lurraldearen dinamikaren funtsezko elementua baita, bi helburu lortzeko: Bizkaian bizi diren pertsonak garatzea eta bisitari berriak erakartzea, horrek dakarren aberastasunarekin.
- 12#** Bizkaia **HELMUGA BIZIA ETA EROSOA**: Bizkaira bizitzera, lan egitera edo bisitatzera etortzen diren pertsona guztientzat helmuga eroso izaten jarraitu behar dugu- Pertsona horiek Bizkaian ekarpenak egiten dituztela kontuan hartuta, integratzen edo egindako bisitan lagundu behar ditugu, hots, beren harrera-bulegorik onena izan behar dugu. Gizarte abegitsua gara, eta munduari hori erakusten jarraitu behar diogu.
- 13#** Bizkaia **KONEKTATUTA**: Bizkaiko gizon-emakumeek puntako garraio-sare publikoa dute eskura, Abiadura Handiko Trenarekin handituko dena. Horrela, Bizkaibus, metroa, tren, tranbia eta errepide-sare osoa du. Horiek guztiak mantendu behar ditugu, eta eraginkortasunaren inguruan sustatu.
- 14#** Bizkaia **OREKATUA**: Garatuta dagoen gizarte batek gizarte orekatua izan behar du nahitaez. Bizkaia orekatua behar dugu. Osatzen duten eskualdeen artean orekatua, generoaren arloan, hezkuntzara eta prestakuntzara sartzeko aukeretan, enplegua lortzeko aukeretan.
- 15#** Bizkaia **GARDENA**: Aldundiaren gardentasunik handienetik abiatuz, eta informazioa zorrotza eta zabala izateaz gain, herritarrentzat ulergarria ere izateko esfortzua eginez, bere zergen azken zentimoa ere zertarako erabiltzen den jakin dezagun. Baina gardentasun-maila hori seriotasunez eta ez demagogiaz erakunde, eragile eta enpresa guztietan aplikatzea lortuz, gardentasuna eta kontuak ematea ezinbesteko balioak direlako Bizkaiko gizartearekin duten konpromisoa betetzeko.
- 16#** Bizkaia **ZUZEN ETA ARDURATSUA**: Zuzentasunak eta erantzukizunak Bizkaiko gizartean sartu behar diren balioak izan behar dute. Noski, lehendabizi, Aldundian. Baina batia gizarte-erakundeetan, enpresetan eta pertsonengan ere. Banako etika etika kolektiboa eraikitzeko. Inolako iruzur fiskalik gabe. Eta hori ez bada gertatzen, bere zerga-betebeharrak betetzen ez dituzten pertsonen eta enpresen aurrean gogortasunik handienarekin jokatuz.
- 17#** Bizkaia **KONPROMETITUA ETA PARTE HARTZAILEA**: Bizkaiaren etorkizunak guztiongan du eragina. Iritzi, ideia eta proposamen guztiak behar ditugu: gizarte-erakundeenak, enpresa-elkarteenak eta gureak. Bizkaia guztion artean egiten dugu; ez dute administrazioek bakarrik egiten.

- 18#** Bizkaia, **LAGUNTZEN DUENA:** Laguntzea funtsezko balioa da. Etorkizuna lagunduz eraikitzen da. Kanpoaldera eta barrura lagundu behar dugu. Kanpoaldera beste erakunde batzuekin eta oso bereziki Eusko Jaurlaritzarekin, gure herritarrei eta gure enpresei eragiten dieten gauza guztietan. Eta barrura, gure eskualdeetan eta euren artean laguntza sustatuz.
- 19#** Bizkaia, **TRADIZIOA ETA ETORKIZUNA KONBINATZEN DITUENA:** Harro sentitzen garen historia bat dugu, memoria historikoa eta kultura-ondarea, eta hori babestu behar dugu, garatzeko eragile moduan erabili, turismoaren esparruan esaterako. Baina aldi berean etorkizunari irekita egon behar dugu. Munduan ingelesez hitz egiten da, eta izan nahi dugun Bizkaia lehiakorrean ingelesez eta beste hizkuntza batzuetan ere hitz egin beharko dugu, beste herrialde batzuetako herritarren maila berean egoteko.
- 20#** Bizkaia **EUSKALDUNA:** Ez da nahikoa gure neska-mutilek eta gazteek euskara jakitatea edo euskaraz ikastea. Euskara gure eguneroko agendan sartu behar dugu, gure saltokietan, gure enpresetan, gure erkidegoko jardueretan, gure aisialdiko jardueretan, gure erakundeen kudeaketan. Jarrera ireki eta errespetutsuarekin euskaraz hitz egiten ez dutenekin. Euskaraz bizi behar dugu. Eta bizkaiera ere zain behar dugu, gure euskalkiaren kultura-aberastasuna ezin dugulako galdu.

3# GURE BIZKAIRAKO PROGRAMA

1 HELBURU HANDI: EKONOMIA SUSPERTZEA ETA
ENPLEGUA SORTZEA, PERTSONETAN INBERTITZEN
JARRAITZEKO

5 KONPROMISO

10 LEHENTASUNEZKO JARDUERA-LERRO

10 PROIEKTU ESTRATEGIKO



HELBURU HANDI BAT: EKONOMIA SUSPERTZEA ETA ENPLEGUA SORTZEA, PERTSONETAN INBERTITZEN JARRAITZEKO

Enplegua premiazkoena da; ekonomia, garrantzitsuena. Ekonomiarik gabe ez dago ezer: ez gizarte-zerbitzurik, ez zerbitzu publikorik, ez inbertsiorik azpiegituretan, ez kulturarik, ez aisialdirik... Eta enplegurik gabe pertsonak oso zaila dute beren bizitza-proiektua garatzea. **Ekonomia-jarduera eta enplegua sortzen laguntzeak izan behar du gure gizarte-politika handia.**

Enplegua enpresek sortzen dutela kontuan hartuz, Aldundiaren jarduera-lerro estrategikoetako bat hori izaten jarraitu behar du, hots, sortzen, finkatzen eta garatzen laguntzea. Kuantitatiboki oso garrantzitsuak diren eta dagoeneko finkatuta dauden sektoreak ditugu gure ekonomian, hala nola automobilgintza, aeronautika, energia, ingeniari-tza-zerbitzuak... Eta garatzeko bidean dauden beste sektore batzuk ere baditugu, eta horietan hazteko gaitasuna dugu, hala nola biozientziak, IKTak eta industria sortzaile eta kulturalak. Horrez gain, biztanleen zahartzearen dinamikak berak bere aukera ere badu, “zilar ekonomia”ren garapena aukera ekonomikoa izan daitekeelako, ez bakarrik laguntzaren arloan, gero eta gehiago diren biztanle horiei zuzendutako produktuen sorkuntzan eta komertzializazioan ere bai.

Gure enpresa-egiturarekin (eta oso bereziki gure ETEekin) dugun aliantza areagotu behar dugu, bere inbertsio, berrikuntza eta nazioartekotze estrategietan lagunduz eta lankidetzaz sustatuz. Negozio-aukerak mundu mailan sortzen dira. Mundua gure aukera da eta Bizkairako aukerak bilatzera eta Bizkaian diseinatutako eta egindako produktuak saltzera ateratu behar dugu. Elkarrekin (enpresak eta administrazioa), lehiakorragoak izan gaituzten eta enpleguei eusteko eta berriak sortzeko. Badakigu lehiakorrak izatea ez dela prezioak eta soldadak jaistea merkeagoak izateko; balio erantsia eskaintzen da kontua. Gaztelaniazko **3i + C formulak** (inbertsioa, berrikuntza, nazioartekotzea eta lankidetzaz) “formula magikoa” izan behar du, Bizkaia hazteko.

Balio erantsia eskaintzeko funtsezkoa da prestatuta dauden pertsonak izatea. Gure pertsonak prestatuta izan behar ditugu Bizkaian. Prestakuntzarik gabe gerta daiteke enpresek sor ditzaketan enplegu-aukerak galtzea, pertsonak duen prestakuntza gure enpresa-egituraren eskaera eta beharretarako ez bada egokia. Gure talentua garatu behar dugu. Eta atxiki behar dugu. Baita erakarri ere beharrezkoa denean.

Garapen endogeno bati emandako laguntza horrek etekina ateratu behar dio gure enpresek hazteko eta enplegua sortzeko duten ahalmenari, eta guztiz bateragarria da beste lan-ildo osagarri batekin: Bizkaira enpresak ekartzearekin alegia, kanpoko inbertsio produktibo horrek enplegua sor dezan. Horretarako, lurralde ireki eta egoki batek eskaini behar dituen beharrezko baldintzak sortu behar ditugu, nahikoa estimulu eta pizgarriekin. Bestalde, lan proaktibo bizia garatu behar dugu inbertsio horiek Bizkaira erakartzeko.

Horretarako guztira hemen lan egin behar dugu, baina **munduan dauden beste aukera-zentro batzuekin elkarlanean** ere aritu behar dugu, eta aliantza iraunkor berriak garatu.

Hori guztia pertsonekin beti, Bizkaiko pertsonekin. Eta oso bereziki gure gazte eta langabeekin.



5 KONPROMISO

- 1# **Konpromisoa PERTSONEN DUINTASUNAREKIN:** Pertsonak lurralde baten bihotzak dira. Bizkaiaren garapenean ezin dugu inor atzean utzi. Hori dela eta, egiten ditugun jarduera guztien helburu nagusia biztanle guztien ongizatea hobetzea da.
- 2# **Konpromisoa BALIOEKIN:** EAJren foru-gobernuak beti gardentasun, zuzentasun eta esfortzu handienarekin jarduteko eta balio horiek foru-erakunde osoari eta Bizkaiko gizarteari igortzeko konpromisoa hartzen du.
- 3# **Konpromisoa IREKIAK ETA HURBILAK IZATEKO ETA BUROKRAZIA MURRIZTEKO:** Foru Jauregia guztion etxea da, eta ahaldu nagusiarena eta bere gobernu-taldearena, denon gobernu dena. Erabakiek ere guztionak izan behar dute. Entzuten, hitz egiten, negoziatzen eta erabakitzen jakin behar da. Eta burokrazia murriztu behar dugu.
- 4# **Konpromisoa ZORROZTASUNAREKIN ETA ERAGINKORTASUNAREKIN:** Diru publikoa herritarren poltsikoetatik ateratzen da eta zorroztasun eta eraginkortasunik handienarekin kudeatu behar dugu.
- 5# **Konpromiso LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUAREKIN:** Bizkaiko pertsonen, lurraldearen eta enpresen garapena ezin da lortu bakoitza bere aldetik badoa. Lankidetzarik handiena behar dugu ekimen publikoaren eta pribatuaren artean. Denon onerako. Guztion onerako. Bizkaia denon artean egiten dugu.



10 LEHENTASUNEZKO JARDUERA-LERRO

- 1# **EKONOMIA:** It's the time for Biscay: Bizkaiko enpresa lehiakorrek ekonomia ireki batean, eta Bizkaian inbertitzen duten munduko enpresak
- 2# **ENPLEGUA:** Premiazkoena; lehentasunezkoena.
- 3# **GIZARTE EKINTZA:** Inor atzean uzten ez duen gizarte-sarea.
- 4# **GAZTEAK:** Konfiantzazko beste eremu batzuk sortzea, Bizkaia eraikitzen ere parte har dezaten.
- 5# **KULTURA:** Gizarte- eta ekonomia-garapenaren funtsezko elementua.
- 6# **ESKUALDEKO GARAPEN IRAUNKORRA:** Eskualde guztietarako aukerak.
- 7# **KOMUNIKAZIOAK:** Loturak erraztuz.
- 8# **EUSKARA:** Euskara erabili. Erabilera sustatzea bizia ematea da.
- 9# **KUDEAKETA:** Aldundi gardena eta hurbilagoa.
- 10# **LURRALDEEN ARTEKO ALIANTZA:** Bilborekin aliantza estrategikoa finkatzea Bizkaia osoarentzat onuragarria izateko.

1) EKONOMIA: IT'S THE TIME FOR BISCAY: BIZKAIKO ENPRESA LEHIAKORRAK EKONOMIA IREKI BATEAN, ETA BIZKAIAN INBERTITZEN DUTEN MUNDUKO ENPRESAK

Ekonomia Bizkaiaren eragilea da. Bizkaiko enpresak eta profesionalak dira enplegua benetan sortzen dutenak, eta beren zergekin lurraldeko gizarte-zerbitzuak, zerbitzu publikoak, kultura- eta aisialdi-zerbitzuak finantzatzen dituztenak. Bizkaiak krisiak kendu dizkion industria- eta enpresa-ahalmena berreskuratu behar du. Hori lortzeko, munduari gehiago irekitzeko apustua egiten dugu guk. It's the time for Biscay. Bizkaiaren ordua da. Mundua gure aukera handia da. Mundura atera behar dugu, gure produktuak eta zerbitzuak saltzera, eta nazioarteko enpresa-proiektu eta inbertsio berriak gure herrialdean ezartzea lortu behar dugu. Aldundiak ekonomia-jarduera eta lanpostuak sortzearen alde egindako apustu honek dakarren arriskua bere gain hartu behar du, inork ez baitu arrakasta aldeztu aurretik bermatzen. EAJk nazioarteko lan handia egiteko konpromisoa hartzen du, ekonomiak gora egitea, enplegua sortzea eta pertsonen inbertitzen jarraitu ahal izatea lortzeko. Politika ekonomiko hori guztia da enplegua lortzen laguntzeko dugun tresna handia.

2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO LEHENTASUNEZKO ARDATZAK ETA EKINTZAK

Munduarekin lotuta dagoen industria-egitura berreskuratzearen aldeko apustua

- Doing Business in Biscay programa berria. Programa berri honek industria-lurzoruko eskaintza osoa, berariazko finantzazioa, fiskaltza propioa eta laguntza publikoak izango ditu enplegu-sorkuntzaren, berrikuntzaren eta nazioartekotzearen esparruetan ([ikusi proiektua 46. orrialdean](#)).
- Kanporako jarduerak atzerriko inbertsioa Bizkaira ekartzeko.
- Partzuergoak, aliantzak eta enpresa-talde berriak sortzen laguntzea, berrikuntzaren eta nazioartekotzearen onerako.
- Bizkaiko industria-enpresetako nazioarteko kideekin lankidetzat indartzea.
- Berrikuntzako eta nazioartekotzeko pakete mistoak elkarrekin sustatzeko politika bat garatzea.
- Estrategia integrala garatzea, Bizkaiko enpresak kokatzeko eta nazioarteko lizitazioetan eta lehiaketetan parte har dezaten.
- Lurraldeak zerbitzu aurreratuetan duen espezializazioaz baliatzea fabrikazio aurreratuaren aldeko apustua indartzeko.
- Industria-enpresei zerbitzu aurreratuak txertatzen laguntzea, produktu eta zerbitzuen eskaintza lehiakorragoa sortzeko.
- Deslokalizazioen kontrako 7/2007 Foru Araua gogortzea, Bizkaiko industria besteko tresna gisa.
- Industria-digitalizazioa sustatzeko estrategia: 4.0 industria, big data, IoT, smartizazioa eta zerbitzizazioa.
- Enpresetarako aholkularitza-zerbitzua indartzea nazioartekotzerako: Bizkaiext zerbitzua.
- Klusterren artean eta kluster barruan lankidetzan aritzea, berrikuntza- eta nazioartekotze-proiektuak garatzeko.
- Erakundeen artean lankidetzan aritzea, Bizkaiko enpresak mundutik hedatzeko.
- Onura fiskalak hobetzea Bizkaian nazioarteko enpresa-talde berriak sor daitezen.

- Bizkaia Talent-ekin lankidetzan aritzea, Be Basque Talent Network sarea osatzen duten enpresen zerbitzura jartzeko.
- Enpresa txiki eta ertainetan inbertitzeko finantza-laguntza indartzea Afipyme programaren bidez.
- Laguntza-programa bat sortzea langileek enpresen jabetzan parte har dezaten.

Bizkaia, aukerako lurralde moduan kokatzea munduan

- Bizkaia munduko aukera-zentro nagusiekin lotzen duen sare iraunkorra sortzea: AEB, Pazifikoko Aliantza, Europako Iparraldea eta Asiako hego-ekialdea.
- Lehenasunezko interes-eremuetan eta herrialdeetan atzerriko inbertsioak erakartzeko aukeratzeko jarduerak.
- Nazioarteko finantzazio gehiago ekartzea lurraldera.
- Enpresa multinazionalen I+G unitateak erakartzea Bizkaira.
- Europako funtsak biltzea Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako ekonomia- eta enplegu-sustapenerako programak batera finantzatzeko.
- Parte-hartze aktiboa izatea enpresa-ekimenarekin zerikusia duten nazioarteko foroetan, eskualde ekintzaileen mundu-sare baten elkarlana finkatzeko.
- Erreferentzia-zentroekin lankidetzan aritzea, Bizkaiko startupak (mikroenpresak) nazioartekotzeko; Boston, Londres, Helsinki...
- Jarduera-programa UNESCOren Hiri Sortzaileen eta Diseinuaren Hirien Sarearen barruan garatzea.
- Eragin handiko nazioarteko ekitaldiak erakartzeko estrategia indartzea.
- Bilbao-Bizkaia estrategia finkatzea, lurraldea "Basque world" mundura sartzeko ate moduan identifikatzeko.
- Bilbao Bizkaia be basque markak nazioartean duen irudia indartzea.
- Bizkairako interes estrategikoa duten nazioarteko foro, azoka eta ekitaldietan Bilbao-Bizkaia marka iraunkorra izatea.
- Bilbao-Bizkaia markaren Enbaxadoreen programa abian jartzea.
- Be Basque Talent Network sarea garatzea, nazioarteko erakundeetan pertsonekin aritzeari arreta berezia jarritz.
- Truke-harreman egonkorak politika publikoen eta jardunbide egokien berrikuntzan liderrak diren eskualdeekin.
- Industria-lur programa malguagoa eta lehiakorragoa.
- Katalogo digital bat egitea Bizkaiko industria- eta enpresa-eskaintzarekin.

Apustu handia lehenasunezko sektoreen alde: Automobilgintza, aeronautika, energia, IKTak eta bio-osasuna-zilar ekonomia

- 3i programa enpresa-proiektu eragileak sustatzeko, inbertsioari, berrikuntzari eta nazioartekotzeari lagunduz.
- Energy Intelligence Center zentroa sortzea, energiaren sektorea eta haren balio-katea Bizkaian finkatzeko. (Ikusi proiektu estrategikoa 48. orrialdean).

- Boroako Automotive Intelligence Center (AIC) zentroa nazioarteko erreferentziako gune gisa finkatzea, automobilgintza sektorearen berrikuntzarako.
- Zamudioko Teknologia Parkean dagoen Fabrikazio Aurreratu Aeronautikako Zentroa abian jartzea eta finkatzea.
- Bizkaiko energiaren eta elektrizitatearen sektorean aliantza estrategikoa sustatzea.
- Bertako hornitzaileen kateak indartzea lehentasuneko sektoreetan.
- Bizkaiko IKTen sektoreko enpresen artean aliantzak bultzatzea, nazioarteko proiektuetan parte hartzeko aukera ematen dien dimentsioa lortzeko.
- Lurraldeko bio-osasuneko enpresen sektorea indartzea.
- Osasunaren sektoreak, gizarte-eskaerak eta zahartzeak enpresa- eta teknologia-proiektu berriak sortzeko eskaintzen dituzten aukerez baliatzea.

Prestakuntzaren, talentuaren eta ezagutzaren aldeko apustua

- Bizkaia Katedra sortzea, unibertsitateekin eta prestakuntza-zentroekin batera lurraldeko lehentasuneko sektoreekin loturako bikaintasuneko prestakuntza bultzatzeko eta sektore horietan zuzenean aplikatzeko.
- Talentua Bizkaiko enpresetara erakartzea eta berreskuratzea.
- Fellow Bizkaia programa berria Bizkaia Talent-ekin lankidetzan, Bizkaiko zientzia eta teknologia sisteman parte hartzeko.
- Ezagutza igortzeko programa, enpresetan doktoreak kontratatuz.
- Bizkaiko zientzia eta teknologia sistemaren nazioarteko finantzazioa eskuratzeko gaitasuna hobetzea.
- Enpresetarako txeki teknologikoak, sistema zientifiko-teknologikoko eragileek haien behar teknologikoei buruzko diagnostiko azkarra egin dezaten.
- Bizkaiko zientzia eta teknologia sistemaren nazioarteko finantzazioa eskuratzeko gaitasuna hobetzea.
- Berrikuntza Funtz Estrategikoa lurraldean interes berezia duten proiektuei zuzenean laguntzeko tresna gisa finkatzea.
- Teknologia ezagutza-zentroetatik ETEetara eramateko programa.
- Ikastetxeetan kultura zientifiko eta teknologikoa sustatzea.
- Kultura zientifikoaren katedra sustatzea Euskampusen elkarlanean.
- BTEK Teknologiaren Interpretazio Zentroarekin lankidetzan aritzea, Bizkaiko gazteen artean zientzia eta teknologia sustatzeko.
- Bizkaiko gazteen artean prestakuntza zientifiko teknologikoa sustatzea.

Enpresen hazkundearen eta aukera handiko garatzeko bidean dauden sektoreak finkatzearen aldeko apustua

- Hazteko ahalmen handia duten enpresei laguntzea eta enpresa txikien hazkundea azkartzea.
- Seed Capital foru-baltzuaren BI funtsa (Enpresen Hazkunderako Funtz) handitzea eta finantzazio-

lerro berri bat sortzea, hazten ari diren enpresetarako Nazioarteko Baterako Inbertsio Funtzak abian jarritz.

- Elkarlanean programa: Enpresa-lankidetzak sustatzea, enpresa txikien dimentsioa handitzeko, haien lehiakortasuna hobetzeko eta aliantzak, partzuergoak eta proiektuak sustatzeko, hazteko estrategia moduan.
- Sendotu zerbitzu berria, autoenpleguko ekimenak eta mikroenpresak abian jartzen direnetik bigarren eta hirugarren urtean finkatzeko.
- Autonomoen finantzazioari laguntzeko AFA programa finkatzea.
- Bizkaiko artisautzaren sustapena eta sektoreko kudeaketaren eta lehiakortasunaren hobekuntza bultzatzea.
- Bizkaia sortzailea eta digitala: nazioarteko proiektu eragileak erakartzea; enpresa digitalei eta sortzaileei laguntzeko nazioarteko ekitaldi/azoka garrantzitsu bat sustatzea, eta enpresa sortzaileei eta digitalei laguntzeko Bizkaia Sortzailea eta Bizkaia Digitala programak finkatzea.
- Berariazko jarduerak garatzea Bizkaiko turismo-enpresak hazteko eta sendotzeko.

2) ENPLEGUA: PREMIAZKOENA; LEHENTASUNEZKOENA

Enplegua sortzen duen industria-politika bat bultzatzeaz gain, berariazko proposamenak ere eskaintzen ditugu langabeziari aurre egiteko. Gure erronkarik garrantzitsuenak hurrengo legegintzaldian 10.000 lanpostu berri sortzea da, eta arreta berezia jartzen diegu iraupen luzeko langabeei, 45 urtetik gorako langabeei eta gazteei. EAJren lehentasunezko helburua enplegu gehiago eta hobea sortzea eta enplegu hori iraunkorra izatea da. Azken urteetan izandako krisi ekonomiko larriaren ondorioz nabarmenena eta dramatikoena Bizkaian milaka lanpostu galtzearena izan da. Orain, pixkanaka suspertzen ari den testuinguru ekonomiko berri baten aurrean gaude. Enplegu duina eta kalitatezkoa sortzea da ongizatearen politikarik onena. Gizarte modernoetan pertsonak garatzeko eta harremanetan jartzeko tresnarik onena enplegua da. Pertsonen enpleguaren eta enplegarritasunaren aldeko apustua egiten dugu. Aldundiak enplegua sortzeko inbertsioa bideratzen duen esparru publiko bat sortzeko lan egingo du, eta horretarako, Bizkaian enplegua mantentzen eta sortzen laguntzen duten ekimen publiko eta pribatu guztiei lehentasuna emateaz gain, horiek sustatu ere egingo ditu.

2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO LEHENTASUNEZKO ARDATZAK ETA EKINTZAK

Iraupen luzeko langabeentzako, 45 urtetik gorakoentzako eta gazteentzako programa bereziak

- Erakunde eta enpresetarako laguntza ekonomikoak, 2015-2019 legegintzaldian iraupen luzeko 2.000 langabe berriro prestatzeko eta kontratatzeko planak abian jartzeko.
- Gaztenplegua programa abian jartzea, legegintzaldian 4.000 gazte laneratzeko: 1.500 gazte lehen

enplegua izateko aukera izan dezaten; 1.500 gazteren kalitatezko kontratazioa eta kontratazio egonkorra sustatzeko; prestakuntza profesionala hobetzeko eta laneratzeko ekimenak 1.000 gazteentzat.

- Lan Berri Senior programa berria, esperientzia eta gaitasun profesional zabala egiaztatzen dituzten 45 urtetik gorako 2.000 langabe berriro lanean has daitezten, krisialdian enpresak desagertzeko enplegu-erregulazioko espedienteen eta enpresen ixteen kaltetuenak izan direlako.

Balio erantsi handiagoko lanpostu berriak sustatzea

- Gazteek industrian duten interesa baloratzea, Ekin Industry ekimena abian harriz Lanbide Heziketako zentroen eta unibertsitateen laguntzaz. Horrela, gazteek hurbiletik ezagutuko dituzte Bizkairako lehentasunezkoak diren proiektu industrialak eta berritzaileak.
- Mundu Aukera programa berria, gazte profesionalen lan kontratua finantzatzeko enpresei, nazioarteko enpresa-esperientzia beregana dezaten.
- Espezializatuta dauden teknikarien prestakuntza bideratzea lehentasunezko sektoreetarako.
- Laguntza-sare bat abian jartzea Bizkaiko enpresetako zuzendariak eta enpresaburuek gazteak kontrata ditzaten.

Enplegarritasuna hobetzeko programa bereziak sustatzea

- Eremu Behartsuetan Enplegua sortzeko Funts Berezia sortzea. Erakundeen arteko (Eusko Jaurlaritza, Aldundia eta udalak eremu behartsuetan) talka-plan bat sustatzen dugu, prestakuntza profesional urria eta egiturazko langabezia erortzeko arriskua duten 2.000 langabeentzako aparteko aurrekontu-zuzkidura duen funts berezi bat sortuz. Planean berariazko ekintzak jasoko dira, langabeziak berriro prestatzeko eta geroago hobaridun kontratazioaren bidez laneratzeko eta autoenpleguari laguntzeko.
- Bikaintasuneko Prestakuntza programa bultzatzea, nazioarteko zentro ospetsuetan gazteak har ditzaten.
- Landuz bonua abian jartzea. Bonu horri esker, maila profesionalean orientazioa behar duten langabeek birziklatze profesionaleko esperientzia trinkoa izango dute enpresa- eta erakunde-sare laguntzaile batean. Praktikoak den prestakuntza horrek enplegarritasuna hobetuko du eta lanpostu bat lortzeko aukera sortuko du.
- Bizkaiko gazteen enplegarritasuna sustatzen duten eragile eta erakunde publiko, pribatu eta mistoekiko lankidetzak finkatzea.

Enpresa-ekimenaren eta kultura ekintzailearen aldeko apustua

- Ekintzaileentzako crowdfunding tresna publiko eta pribatu berria abian jartzea.
- Euskal unibertsitateekin batera enpresa ekimeneko ezagutza aurreratuko zentro bat garatzea.
- Mundu mailako enpresa ekimeneko inguru eta erakundeekin ezagutza-truke iraunkorreko sarea ezartzea.
- Bizkaiko enpresa eragileek enpresa-ekimen berriak garatzeko aukerak bilatzen laguntzea.
- Startup enpresei kapitalera, bazkideetara eta merkatuetara sartzen laguntzea.

- Enpresa-ekimenaren arloan Tknika, Euskal Autonomia Elkarteko Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroak Bizkaiko Teknologia Parkeko G12 Kabi-n duen kokapen berrian antolatzen dituen jarduerak bultzatzea.
- Mikroenpresetarako kapital-funtsak eta mikrokredituak handitzea.
- Belaunaldien ordezkorik ez egoteagatik desagertzeko arriskuan dauden enpresei eskualdatzen laguntzeko ekimen berria, pertsona ekintzaileek hartzeko aukera gisa.
- Ikastetxeetan kultura ekintzailea sustatzea. Egin eta Ekin programa sustatzea.
- Autoenpleguaren alde apustu egiten jarraitzea, enpresa-ekimenera sartzeko eta lanpostu berriak sortzeko bide gisa.
- Bizkaiko enpresa eragileen barruan ekiteko programa berria.

3) GIZARTE EKINTZA: INOR ATZEAN UZTEN EZ DUEN GIZARTE-SAREA

2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO LEHENTASUNEZKO ARDATZAK ETA EKINTZAK

Adinekoen parte-hartze aktiboa

- Adinekoen partaidetza-organismoak finkatzea, hala nola Bizkaiko Adinekoen Kontseilua, adinekoentzat eta adinekoekin politikak sortzeko.
- Adinekoen gizarte-partaidetza sustatzea, adinekoen elkarten edo gizarte-partaidetzako modu berrien bidez.
- Adinekoen gaitasun osoa garatzeko bideak eta Bizkaia-egindako gizarte-ekarpena sustatzea.
- Zeharkako estrategiak garatzea, adinekoak Bizkaiko aurrerapenaren protagonistak ere izan daitezen, adin guztietarako lurralde moduan.

Etxean daudenei laguntzea

- Mendetasunaren Legean jasotzen diren prestazio guztiak ematea, I Gradua aitortu zaien mendeko-egoeran dauden pertsonak (2015eko uztailan sartzen direnak) barne hartuz.
- Teknologia berrien erabilera sustatzea, mendetasun-egoeran dauden pertsonak herritarren partaidetza dituzten jardueraren mugak, bakartasuna edo murriztapenak orekatzeko edo arintzeko.
- Orientazioko eta laguntza teknikoak Gizartek zerbitzua luzatzea, pertsonak beren etxean egoteko aukera izan dezaten, etxean beharrezkoak diren hobekuntzak eta egokitzapenak eginez, eta teknologiak hurbilduz.
- Mendetasun-egoeran dauden pertsona ahulenen bakartasun egoerak prebeni daitezen sustatzea, erkidegoan txertatzeko programen bidez.
- Jarduera-protokoloa osorik hedatzea, adinekoak edota tratatu txarrak izan ditzaketen desgaituak artatzeko, prebenitzeko eta aurkitzeko.

- Zaintzaile informalen lana onartzea, lan-jarduera gisa har dezaten. Zaintzaileen Estatutu bat garatzea proposatzen dugu, zaintzaile informalei bermeak, prestakuntza eta laguntza eskaintzen dizkien neurriak jasotzen dituen (hurrengo sei neurriak estatutu horretan jasoko dira).

Administrazioak eta legeak zainketa informalak onar ditzaten sustatzea.

Zaintzaileek aurreikuspen-sistemetara egindako ekarpenak konpentsatzea.

Lurraldeko zaintzaileei informazioa emateko eta laguntzeko zerbitzu integrala garatzea.

Zaintzeko eta zaintzaileen geroagoko egokitzapen profesionalerako prestakuntza sustatzea.

Zainketa-lanen segurtasuna eta ergonomia sustatzea, ikasketak, sentsibilizazio-ekintzak eta aholkularitza sustatuz.

Arnas-programak indartzea egoitza-zentroetan, eguneko zentroetan eta orduko, zaintzaileek aldizka atseden hartzeko aukera izan dezaten.

Mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta

- Izapideei erantzuteko denbora murriztea eta izapideak murriztea mendetasuna baloratzean, udalekin eta osasun-sistemeekin jakinarazpen-prozesu telematikoa erabiliz.
- Mendetasun-egoeran dauden pertsonak artatzeko zentroen sarea finkatzea, eta lurraldeen artean orekatua, sarbide unibertsala eta berme publikoa izatea.
- Zentroen artean nahi ez diren lekualdaketak edo mendeko egoeran dagoen pertsona bere ohiko lekutik ateratzea saihesten dituzten kudeaketa-formuletan aurrera egitea.
- Egoitza-zentroen sarea garatzea eta espezializatzea, pertsonari lehentasuna ematen dion sare aurreratu moduan, gizarte eta osasun mailan arreta-konplexutasun handiko egoerei erantzuteko.
- Pertsonari emandako arretan aurrera egitea, pertsonak eta haien senideek artatzea gustatuko litzaieken tokia eta modua inguruan duten ikuspegia kontuan hartuz. Pertsonak beren bizitza-proiektuak zuzentzeko duten gaitasunean eta borondatean konfiantza dugu, beren erabakietan lagunduz. Bestalde, artatzea gustatuko litzaieken tokia eta modua kontuan hartzen ditugu.
- Kontzertazio/kudeaketa ereduak txertatzea. Horrela, pertsonak artatzeko lekua eta modua aukeratzeko duen eskubidea lehentasuna emanez, zerbitzu-erakunde sarbide unibertsala bermatu beharko dute, mendetasun-mailaren (edota behararen) arabera, bere gaitasun ekonomikoa kontuan hartu gabe.

Pertsona ezinduen bizitza independentea erkidegoan

Erkidegoan Parte Hartzeko eta Bizi Kalitatea Izateko Eredua kontsolidatzea, ezintasunen bat duten pertsonen eta beren familiei laguntza emateko erreferentziazko eredu delako.

- Bizitzako lehenengo urteetan arreta goiztiarra eskaintzeko programetan inbertitzea, pertsona guztien gehiengo autonomia indartzeko.
- Norberaren autonomia sustatzeko programak dituzten eta pertsona guztien gaitasunak indartu eta mantentzen dituzten zentroetan inbertitzea.
- Laguntza pertsonala hedatu eta hobetzea, pertsonari zeharkako laguntza eskaintzeko.
- Ezintasunen bat duten pertsonak erkidegoan bizitzea eta ez instituzionalizatzea ahalbidetzen duten etxebizitzaren sarean aurrera pausuak ematea. Etxebizitza horiek bizitza independentea izaten laguntzeko programak dituzte.

- Pertsona ezinduen bizitza-zikloaren ikuspegia laguntza eta erantzun pertsonalizatuen diseinuan sartzea.
- Lanerako zentroak sendotzea eta zerbitzuei mesede egitea, gizarte-lanaren igarotzerako.
- Zentroak eta zerbitzuak zahartzen ari diren pertsona ezinduen beharrianetara egokitzea.
- Aldundiko sailen politiketan irisgarritasun unibertsalaren irizpideak zeharka barne hartzea.
- Aldundiaren komunikaziorako tresnak hobetzea, irisgarritasun unibertsala lortzen joateko.
- Pertsona ezinduek eta beren familiak ordezkatzeko dituzten erakundeekin lankidetzan aritzeko formuletan sakontzea, pertsona horiek eragiten dizkieten politika publikoetan parte hartzeko eta aurrera egiteko modua delako.
- Teknologia berrien erabilera bultzatzea, pertsona ezinduek herritar modura duten parte-hartzea ez mugatzeko eta ez isolatzeko.
- Gizarteratzea
- Ahulak diren edo baztertuta dauden eta gizarte horretan bizitza oso bat izan nahi duten kolektiboentzako programak eta baliabideak kontsolidatzea.
- Mendetasunen bat, GIB eta/edo patologia dualen bat duten pertsonentzako zentro eta zerbitzuen sarea kontsolidatzea, autonomia gehiago lor dezaten eta laguntzarekin haien bizi-proiektua gara dezaten.
- Bazterte-egoeran dauden pertsonentzako gaitze sozialerako zentroen garapena bultzatzea, jardunaren bitartez enplegurako jautzia posible egiteko.
- Laguntza-intentsitate txikiko etxebizitzak eta pentsioen sare bat bultzatzea, pertsonak gizarteratzeko prozesua ondo amai dezaten, intentsitate altuko baliabideetatik igaro ondoren.
- Gizarteratzeko estrategia osagarri eta berriak sustatzea, erkidegoaren garapenetik abiatuz. Izan ere, guztiz gizarteratzeko beharrezkoa da erkidegoko bizitzan parte hartzea eta norberaren sare informala (ber)eraikitzea.
- Gizartetik baztertzeko dakarten faktoreak etengabe kontrolatzea, Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren Begiratokiaren bitartez, politika publikoak eman beharreko erantzunak egokitzea.

Berdintasunaren eta dibertsitatearen sustapena

- Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako bosgarren Foru Plana 2016-2019 egin eta aplikatzea.
- Berdintasunerako zeharkako politikak indartzea Aldundiaren jarduketara guztietan ([ikusi 55. orrialdeko proiektu estrategikoa](#)).
- Koordinaziorako organoak aprobetxatzea, Aldundiaren berdintasun politiken eragina handitzeko, bereziki Berdintasunerako Foroarena eta Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiarena.
- Lurraldeko gazteen artean berdintasunaren inguruan kontzientziatzeko eta hezteko kanpainak egitea, zehazki informazioa emateko eta hezteko ekintzak, estereotipo sexistak desagerrarazteko eta genero indarkeria prebenitzeko, beste batzuen artean Beldur Barik kanpaina kontsolidatuz.
- Genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeei laguntza integrala eskaintzeko programa kontsolidatzea eta horren barruan kolektibo horri lagunduko dien Gizarte Bitartekarien Sare bat dinamizatzea.

- Ordutegiak malgutzeko eta arrazionalizatzea, norberaren, familiako eta laneko bizitza hobeto bateratu ahal izateko. Bateratzeko eta denborari erabilera berriak emateko jardute onak hauteman eta ezartzeko denBora Sarea kontsolidatzea.
- Sexu-, erlijio-, etnia- eta kultura-dibertsitatearekiko tolerantzia sustatzea, sentsibilizazioarako kanpainak indartuz eta pertsona guztiek, haien jatorria, arraza, erlijioa edo sexu-orientazioa edozein delarik ere, herritar modura dituzten eskubideak bermatzeko lanean aritzen diren erakundeei laguntzea.
- Etorkinen dibertsitatea kudeatzeko eta haiek Bizkaian modu armoniatuan gizarteratzeko politika bat sustatzea.
- Mundu mailan giza eskubideak eta justizia soziala bultzatzea, deszentralizatutako kooperazioarako politika publiko bat kontsolidatuz. Politika hori lurraldeko kooperazio-eragileen, horien aurkako alderdien eta gizarte zibileko beste eragile batzuen artean eraikia litzateke.

Haurren eta familiaren aldeko inbertsioa

- Adingabeak dauden familia ahuletan esku-hartze sozial eta hezkuntzazkoa egiteko neurriak indartzea.
- Udak eta hezkuntza zerbitzuak lankidetzan aritzea eta hurbilagoak izatea, babesik gabeko egoeran dauden adingabeak hauteman, baloratu eta laguntzeko.
- Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko programa indartzea, udal gizarte zerbitzuekin eta hezkuntza sistemarekin batera, eskolara faltatzen direnen eta eskolatu gabeen tasa jaitsi dadin.
- Babesik gabe dauden adingabeak hartzea, familia handi, desberdin edo profesional batean, haiek babesteko lehentasunezko neurri gisa.
- Babesik gabe dauden pertsonak jagon eta haiei laguntzea, osoa eta arrakastatsua den bizitza-proiektua eraiki dezaten.
- Babesik gabe dauden nerabeen garapen osoa sustatzea, informalak diren laguntza-sare batzuk garatuz (aisiarako espazioetan eraikitakoak, esate baterako), helduak direnean lagunduko dietenak.
- Seme-alaba adingabeen, aitaren, amaren eta familiako beste kide batzuen artean harreman ona izateko zailtasunak edo gatazkak dituzten familiei zuzendutako Familia Topaguneak kontsolidatzea.
- Familian esku hartzeko programa sendotzea, seme-alabek gurasoei emandako indarkerian espezializatutakoa, familiaren dinamika aldatu eta indarkeria erabiltzen ez duen harreman-eredu bat barneratzen laguntzeko.
- Adoptatutako pertsonen eta beren familiei bizitza-zikloaren etapa desberdinetan laguntzeko programak bultzatzea, sentsibilizazioa areagotuz eta adopzioaren ostean prestatuz, eta nerabezaroan bitartekaritza eta laguntza eskainiz.

Hurbiltasuna eta harremanen ikuspegia

- Izapideak eta bizkaitarrekin komunikatzeko erabilitako hizkera sinplifikatzea, gizarte zerbitzuen alorrean.
- Komunikatzeko eta kontsultak egiteko bide berriak bultzatzea (web, telefonoa, txata...).
- Zerbitzuei buruzko informazioa eskaintzeko eta izapideak egiteko guneak garatzea eskualdeetan.
- Aldundiaren gizarte zerbitzuetara jotzen duen pertsona bakoitzari erreferentziazko profesional bat esleitzea, ibilbidean zehar lagunduko diona.

- Laguntza emateko zentroetan kasuak koordinatzea, zerbitzu horietan parte hartzen duten erakundeekin batera.

Sarea eraikitzeako estilo bat

- Konfiantzazko sareek eta familiako eta erkidegoko bizitzak gizartearen kohesioari mesede egiten diotela aitortzea eta haiek indartzeko eta laguntza eskaintzeko erantzukizuna gure gain hartzea.
- Pertsonan oinarritutako laguntza emateko jarduteak eta ereduak barneratzea, pertsonarekin batera laguntza emateko ereduak lortzeko.
- Lurraldeko gizarte-zentro eta zerbitzuetan laguntzaren etikarako batzordeak sortzea.
- Institutuzioen arteko lankidetzak bultzatzea, pertsonan oinarritutako planifikazioa lortzeko tresna modura. Hori ezinbestekoa da osasun sistemaren eta udal eta foru gizarte zerbitzuen esfortzuak batzeko eta pertsonen laguntzeko.
- Lankidetzak publiko-pribatuaren eredu mistoa kontsolidatzea, Gizarte Ekintzaren Hirugarren Sektorean arreta berezia jarritz, berme publikoaren sistema kudeatzeko benetako eredu delako.
- Gizarte izandako aldaketak eta pertsonen beharizanak uneoro begiratzea, zuzenean pertsonen jarduten duten eragileekin sare bat eratuz eta lankidetzan arituz.
- Bizkaiko Elkarriketa Zibilaren Mahaia kontsolidatzea. Lanerako espazio banatua izateaz gain, Aldundiaren eta Bizkaian kokatuta dauden Gizarte Ekintzaren Hirugarren Sektoreko erakundeen arteko elkarriketarako eta lankidetzarako tresna da.
- Gizarte zerbitzuei lotutako erakundeetan kudeaketa-eredu aurreratuak barneratzea, ikuspegi integral batetik: pertsonan eta pertsonarekin zentratutako laguntza, laguntzaren etika, kudeaketaren kalitatea, erakundearen gardentasuna, euskalduntzea eta berdintasuna.

Sistemaren eraginkortasuna eta iraunkortasuna

- Gizarte politikak ebaluatzeko kulturaren aurrera pausuak ematea, gardentasuna eta erantzukizun publikoa oinarri hartuz.
- Osasun sistemarekin lankidetzan aritzea eta komunikazioa mantentzea, laguntza soziosanitarioaren alorrean eraginkorrak izateko, sistema baten eta bestearen baliabideen arteko trantsizioetan arreta berezia jarritz.
- Kudeatzeko modu eta/edo itun publiko-pribatuak bilatzea, eraginkorrak izateko eta lurraldeko beharizan sozialei erantzuteko.
- Iparraldeko herrialdeen jardute onenak trukatu, barneratu eta inorporatzea, kohesio osoa eta ekonomia izugarri lehiakorra dituen gizarteak eraikitzearen erreferentzia baitira. Jardute horiek Bizkaian aplikatu ahal izateko, Iparraldea Argi: iparraldeko herrialdeak laneko ildoak bultzatuko dugu, ondorengo bost jarduketak barne hartzen dituenak:

Trukerako eta ikasteko lankidetzak egonkorra eraikitzea iparraldeko herrialdeekin: Suedia, Finlandia eta Danimarka.

Demografiaren aldaketaren ondorioz, emandako laguntzan oreka berria izateko garatzen ari diren estrategiak trukatzeko.

Herrialde horietan gizarte-zerbitzuak kontratatze edo ituntzeko erabiltzen dituzten sistemak aztertzea, eta horien kalitatea bermatzeko formulak ateratzea.

Haien gizarte eta osasun politiken artikulazioan eta maila anitzeko lankidetzan izandako esperientziak trukatzeko.

Zahartzeari eta ezintasunari lotutako industria teknologikoak batera garatzea.

Gizarte-zerbitzuen kontrola

- Gizarte-laguntza mota guztietan iruzurra gehiago kontrolatzea, zerbitzu zehatz bat sortuz (ikus proiektu estrategikoa 52. orrian).
- Kontrola indartzeko ikuskarpen gehiago egitea, Bizkaian eskaintzen diren gizarte-zerbitzuen kalitatea bermatzeko.
- Sistemaren eskura jarritako baliabide pertsonal eta ekonomikoak behar bezala erabiltzen direla bermatzeko etengabeko jarraipena egitea, auditoretzen bitartez.
- Administrazioen arteko lankidetzeta eta datuen trukea bultzatzea, gizarte-zerbitzuetara sarbidea izateko prozesuak sinplifikatzeko, erantzuteko orduan eraginkorrak izateko eta kontrola areagotzeko.

Gizarte-zerbitzu aurreratuak aukera modura

- Gizarte-zerbitzuak, zerbitzu soziosanitarioak, osasun zerbitzuak eta zainketa-zerbitzuak bultzatzea, gazteen enplegurako aukerak ematen dituztelako eta espezializazio profesionalaren sektorea osatzen dutelako.
- Ekintzailatza sustatzea eta zahartzeak dakarren erronkaren eta gizarte-zerbitzuen inguruan jardura ekonomikoa sortzea ere bai.
- Lurraldeari bultzada ematea, gizartearen eta osasunaren sektorerako eta soziosanitarioarako eduki teknologiko handia duten produktu eta zerbitzu berriak diseinatzeko, garatzeko eta frogatzeko proben banku modura.
- Adinekoen eta pertsona ezinduen elkarten sarea bultzatzea, erabiltzaile aurreratuak diren heinean produktuen garapen industrialean orientatzeko, proba egiteko eta baliozkotzeko.
- Gizarte eta osasun zerbitzuen erakundeen sareari bultzada ematea eta zerbitzuak eskaintzeko prozesuetan produktu berrien erabilera barne hartzea.
- Aldundiak (Gizarte Ekintza) pertsonen karakterizazioari eta gizarte-zerbitzuen eta produktuen erabilerari buruz dituen metadatueta oinarritutako txostenak sustatzea, enpresak eta lanpostuak sortzeko aukera berriak identifikatzeko.
- Bizkaian ekoiztutako laguntza tekniko berritzaileak erostera bideratutako diru-laguntzetarako deialdi bat sustatzea.
- Bizkaiko zentro eta programetan probatu eta baliozkotutako aurrerapen teknologikoak barneratzea, bizi-kalitatea hobetzeko faktorea delako.

Berrikuntza soziala bultzatzea, jardura ekonomiko inklusiboa sortzeko.

- Ekintzailatzaren eta sozialki berritzailea den jardura ekonomikoa sortzearen alde egindako apustua mantentzea, balore ekonomiko eta soziala sortzeko formula delako.
- XXI. mendeko gizartearen eta ingurumenaren erronkak lantzen dituzten jardura berriak sustatu eta haietan inbertitzea.
- Lurraldeko adinekoen giza kapitala barne hartzea, sozialki berritzaileak diren erakundeei laguntzeko.
- Enplegu inklusiborako aukerak sortzen dituen ekonomia sozial eta solidarioa babestea.
- Aldundiaren eta bere menpeko erakundeen kontratazioan kontratuen erreserba bultzatzea eta klausula sozialak sartzea.

4) GAZTERIA: KONFIANTZAZKO ESPAZIO BERRIAK SORTZEA, BIZKAIA ERAIKITZEN PARTE HAR DEZATEN

Gazteak dira Bizkaiko oraina. Beren gizarte- eta ekonomia-garapenaren protagonista dira eta, beraz, herri gisa dugun balio nagusienetako bat. Bizkaiak berezko irizpidea duen eta autonomoa den gazteria, ekimen-dohaina duena, parte-hartzailea, solidarioa eta bere lurraldeko ekonomia- eta gizarte-garapenarekin konpromisoa duen gazteria du eta izaten jarraitu behar du. Hori da erkidego berezi gisa dugun balio eta etorkizuneko berme nagusienetakoa. Lurralde modura aurrera egin eta garatu nahi badugu, gazteen aldeko apustu garbia egin behar dugu. Entzun egin behar ditugu, lagundu egin behar diegu eta guztiaren berri eman behar diegu. Bizkaiaren etorkizuna eraiki behar dugu beraiekin batera.

Gazteria aldaketara egokitzeko eta ideia eta ezagutza berriak emateko gaitasun handiena duen gizarte-kolektiboa da. Gazteak gure kapital sozial onena dira eta aprobetxatu egin behar dugu. Gazteak ez gizarteratzeak dakarren gizarte-, ekonomia- eta kultura-kostua oso handia da. Zenbat eta azkarrago gizarteratu eta laneratu gazteak, lehenago sartuko dugu talentu berria Bizkaiaren hazkuntza sustatzeko.

Gazteei laguntza eman behar diegu, beren bizitzaren eta etorkizunaren benetako protagonista izan daitezen, beren etorkizuna eraiki dezaten.

2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO ARDATZ ETA EKINTZA NAGUSIAK

Lanbide-garapena eta gazteen emantzipazioa

- Gazteen lan-kontrataziorako laguntza-programak indartzea eta, horretarako, lehenengo lan-esperientzian sartzean eta gazteen kontratazio mugagabearen sustapenean eragin berezia izatea.
- Talentua sustatzeko plana garatzea. Zehazki, Talentia programako parte-hartzaileak atzerriko egonaldia duten praktiketarako kontratatze laguntzak sendotzea.
- Gazteak enpresa-mundura hurbiltzea, beren hezkuntza-ibilbidea hautatzeko orduan orientazioa emateko eta prestakuntzarekiko motibazioa areagotzeko.
- Gazteentzako esperientzia-programen ekimenetarako laguntza ematea, garapen pertsonalerako eta profesionalerako beharrezko gaitasunak eskura ditzaten.
- Euskadin Jarduera Ekintzaileari Laguntzeko Erakunde arteko Planean aurreikusitako gazteen ekintzailetzara bideratutako ekintzak garatzea, sentsibilizazioko eta balioen garapenerako -besteak beste, ahalegina, gaitasun ekintzailea, sormena eta berritzeko gaitasuna- ekintzei arreta berezia eskainita.
- Gazteak nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorean ezartzen laguntzeko programak.
- Lanbide-bikaintasunerako programa. Bikaintasunean eta atzerriko hizkuntzan prestatzeko bekak.
- Gazteentzako erabilera partekatuko alokairu-programa bat gaitzea eta, horretarako, lehenetsuna ematea foru-etxebizitza tasatuen sustapenetan erabilgarri dauden etxebizitzak erabilerari.
- Zerga-arintze eta -hobari bereziak ezartzea, 30 urtetik beherako pertsonen kontratazioa sustatzeko, eta 30 urtetik beherakoekin erabilera partekatuko alokairu-araubidearen arabera kontratuak sinatzeko.

- Gazteentzako informazio-bulegoen sarearen zeregina alda dadila sustatzea, espazio horiek lurraldean gazteen inguruko erakunde formal eta informalen laguntzarako eta dinamizaziorako unitate bilaka daitezen.
- Beharrak eta talentua antzematea eta, horretarako, konexio-talde gazteak zabaltzea.

Parte-hartzea

- Gazteen parte-hartzea sustatzea, kolektibo horri zuzendutako jardueren plangintzan, garapenean eta ebaluazioan ez ezik, gazteengan eragina duten gainerako foru-politiketan ere. Horretarako, gizartean gazteagotik partaidetza aktiboarekiko konpromisoa sustatuko dugu, hezkuntza-espazio formalekin eta ez-formalekin lankidetza-proiektuak sustatuz.
- Jada badauzkagun lankidetzarako sareak mantentzea. Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteen Batzorde Aholkularia - Gaztedi Foroa sendotzea, gazteen politikekin zerikusia duten erakunde eta organismo publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta lankidetza sustatzeko.
- Gazteen kolektiboekin komunikatzeko bideak eta moduak egokitzea. K esperientzian, aurrez aurreko espazioan eta birtualean sakontzea, Bizkaiko gazteen parte-hartzea errazteko.
- Gaztebizz sendotzea, parte hartzeko eta gazteen eta Foru Aldundiaren arteko elkarreraginerako atari gisa.
- Gazteen lokalei gazteen lankidetza- eta partaidetza-espazio izateko balioa ematea.
- Bizkaiko gazteen artean boluntariatza sustatzea.

Berrikuntza politikoa

- Erantzukizun partekatua. Politika egiteko beste modu bat diseinua, garapena eta ebaluazioa da. K eredu. Gazteekin batera eraikitzea da helburua, eta ez gazteentzat egitea.
- Gazte-egiturekin lankidetzan jardutea eta, horretarako, sortzen dituzten jardueri laguntza ematea.
- Gizarte-balio handiko proiektuen finantzaketa indartzea.
- Bizkaiko gazteen erakundeekin proiektuak eta jarduerak sustatzea.

Familientzako laguntza

- Udalerri, eskualde eta auzoekin hurbiltasun-sarea ezartzea, gizarte-, kultura- eta hezkuntza-eremuetatik adin gazteenen artean esku hartzeko: haurtzaroa (0-12 urte) eta nerabezaroa (13-18 urte).
- Bizkaia aisialdian hezteko duen estrategia indartzea.
- Aisialdian hezteko udal-programak eta gizarte-ekimeneko proiektuak garatzea.
- Irakasleen prestakuntza eta aisialdiko sektorearen berrikuntza sustatzea.
- Hezkuntzan boluntariatza aisialditik sustatzea.

Berezko kultura-balioen sustapena

- Gazteen artean euskara erabiltzea eta euskaraz kultura sortzea sustatzen duten programa eta erakundeei laguntza ematea.

- Gazteenen artean kulturaren sortze-lana sustatzea eta, batez ere, lurraldearen berezko kultura-adierazpenei balioa eman eta horiek eguneratzen dituzten proiektuetan.
- Lurraldeko gazteen artean berritzeko gaitasuna eta ekimena sustatzea eta, horretarako, laguntza berezia ematea hasieran ekimenak martxan jartzen dituzten gazteen hasierari, porrat egiteko beldurra motibazioa galtzeko elementu izan ez dadin.
- Proiektuen kudeaketaren eta erantzukizun partekatuaren alde egitea eta, horretarako, crowdfunding-ean oinarritutako finantzaketa-sistemak sustatzea.
- Bizkaiko Txanpon Soziala martxan jartzea, ingurunea hobetzen, sortzen eta sustatzen laguntzen duten pertsonen balioa emateko eta horiek saritzeko.
- Ingurumena babesteko eta birziklapenaren, bizimodu osasungarriaren, sexu-aniztasuna onartzearen, feminismoaren sustapenaren eta tokiko produktuekiko konpromisoaren aldeko kontzientzia sortzen duten sentsibilizazio-kanpainak eta programak sustatzea.

5) KULTURA: GIZARTE ETA EKONOMIA GARAPENAREN FUNTSEZKO ELEMENTUA

Kultura-konsumoa lurraldearen gizarte-dinamismoari laguntzen dion faktorea da. Kultura haurtzarotik sustatu behar da, eta, horretarako, kultura-irakaskuntzako klaseak eta metodoak hobetu behar dira. Sentsibilizazioa eta prestakuntza oinarritzko elementuak dira, kultura kontsumitzen eta sortzen duten pertsonak izan nahi baditugu. Trebetasun horiek oinarritik sustatu behar ditugu, hezkuntza-sistematik. Kultura garapen jasangarriaren laugarren euskarria da (gizartea, ingurumena eta ekonomia) eta, EAJ-PNVren iritziz, kulturak gainerako politikak zeharkatzen eta biltzen ditu eta indarra ematen die.

Bizkaiko kultura-garapena sustatzeak dakar lurraldeko eragileek kultura-ekoizpenari laguntzeko eta hura sustatzeko beharra. Baita kultura-azpiegiturei kultura-garapenaren katalizatzaile gisa etekinik onena ateratzea ere. Eta hori guztia bideratzailea den administrazioaren bidez, kultura-sektoreari laguntzeko politiketan ahalik eta eraginkortasunik eta gardentasunik handienarekin jarduteko. Erakundeak eta boluntariotza, Bizkaiko gizartearen identitate-zeinua, ezinbestekoak dira lurraldeko kultura-jarduera administrazioekin batera sustatzeko. Aldundiak kultura-gizartearekin lankidetzan jardungo du, ez du ordezkatzeko eta ez dio lehiarik egingo. Kultura sortzeko, zabaltzeko eta herritar guztiek kulturara jo ahal izateko baldintzak sortzeko ekintzak garatuko ditu, eta bereziki bultzatuko du herri-kultura eta Bizkaiko kultura tradizionalak sustatzea helburu duten proiektuak sortzea eta daudenei eustea.

Gainera, kultura- eta sorkuntza-industrien sektorea gizarte aurreratuetan garapen ekonomikoko aukera garrantzitsuak sortzen dituen eremu gisa osatzen da. Garrantzitsua da kulturaren eta jarduera ekonomikoaren arteko harreman hori dinamizatzea, dimentsio hori aprobetxatzeko; izan ere, kultura ekonomiarako eta enplegurako eragile da eta eragile indartsuagoa izan daiteke Bizkaian.

2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO ARDATZ ETA EKINTZA NAGUSIAK

Museoak eta kultura-azp egiturak

- Kulturenea sortzea, kultura-ekoizpenen eta -adierazpenen faktoria, Horizon 2020 eta Europa Sortzailea 2014-2020 programetan bilduta, lurraldeko artisten eta atzeritarren artean esperientziak elkarrekin trukatzeko espazio gisa. Gainera, Bizkaiko udalerrri eta eskualdeetan faktoria txikiak sustatzea.

- BizkaikOA sendotzea, Aldundiaren partaidetza duten Bizkaiko kultura-ondarea zabaltzeko azpiegituren plangintza estrategikorako, kudeaketa koordinaturako, jarraipenerako, kontrolerako eta ikuskaritza eraginkorrerako tresna gisa, bai eta Bizkaiko kultura-ondarearen zabalkunderako, sentsibilizaziorako eta gizarte-sustapenerako ere.
- “Bizkaiko Museok” marka sortzea, museoen sistema eta lurraldeko ondare-zentro gisa.
- Guggenheim markaren potentziala Bizkairako erabat aprobetxatzea.
- Euskal Museoa berritzea eta sustatzea. Berrikuntza fisikoa eta museoarena berarena, eta museoa Bilbao-Bizkaiko turismo-eskaintzaren erreferentziazko baliabideetan sartzeari, eskaintza horri euskal kultur identitatearen ekarpen handiagoa eskaintzeko.
- Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa, Peñas Negras Ingurumen Interpretazioko Zentroa eta Meatzaldeko Biotopoaren Interpretazio Zentroa Meatzaritzaren Kultur eta Ingurumen Parkean sartzeari.
- Instalazioen, programen eta kultura-ekitaldien kudeaketan herritarren partaidetza babesten duten jarduerak sustatzea.

Kultura-adierazpenak eta -ekoizpena

- BOSi eta gazteen orkestra sinfonikoei laguntza ematea, bai eta musika sustatzeko jaialdiei ere.
- Dantzabiz ekimena sendotzea, Bizkaian dantza indartzeko.
- Euskarazko kultura-ekoizpenari laguntza berezia ematea, edozein euskarritan ere.
- Kultura-mezenasgoa sustatzea, eta, horrela, enpresek Bizkaian kulturaren garapenean parte gehiago har dezaten lortzea. Zerga-pizgarri berriak ezartzeko analisia, kultura-mezenasgoa hobetzeko.
- Haur, nerabe eta gazteei bereziki zuzendutako jarduerak eta ekitaldiak sustatzea, belaunaldi gazteen artean kultura-zabalkundeari laguntzeko neurri gisa.
- Crowdfunding-a gaztez osatutako kultura-elkarteek eta pertsonak sortutako kultura-proiektuak finantzatzeko sistema gisa sustatzea.
- Aldundiak eskaintzen dituen gizarte- eta osasun-espazioetan eta egoitza-espazioetan artearen erabilerari bide ematea eta, horretarako, artista, kultura-erakunde eta gizarte-zerbitzuen artean beharrezko bazkideak bilatzea.
- Bizkaiko kultura-eskaintza guztia (publikoa eta pribatua, profesionala eta amateurra...) jasotzen duen atari digitala sustatzea, kultura-kontsumorako erabilgarria dena, baita negozio-proposamenak planifikatu nahi dituen sektore pribaturako ere.
- Tokiko gastronomia promozionatzea. Hurbileko produktuak erabiltzen ditu eta Bizkaiko kultura ordezkatzen duen jarduerak da.
- Kultura-eragileei laguntza ematea, tokiko, Europako eta nazioarteko lankidetzak sareetan parte har dezaten.
- Egoera ahulenetan dauden pertsona eta taldeei laguntza berezia ematea, emakumeek kultura-bizitzan parte hartzeko aukerak zabaltzea barne.
- Bono Kultura mantentzea, kultura-kontsumoa dinamizatzeko egoeraren arabera baliabide gisa.
- Ikus-entzunezko industriari laguntza ematea, Bilbao Bizkaia Film Commission berriaren bidez, eta, horretarako, arreta berezia eskaintzea sektorearen garapen ekonomikoari eta lurraldea lanbide-ibilbideen espazio natural gisa ikusteko bideari.

- Belaunaldien arteko lankidetzak sustatzen duten programak bultzatzea.
- Gazteentzako kultura-berrikuntzako programak, gizarteratzeari, kultura-mintzairei, inguru digitalei eta genero-indarkeriari buruzko alderdiak jasotzen dituztenak.

Historia- eta kultura-ondarea

- Bizkaiko historiaurreko kobak berreskuratzea eta koba horiek jasotzen dituen kultura- eta turismo-ibilbidea sortzea. Ibilbide horrek Santimamiñe izango luke gune nagusi, eta Bizkaiko historiaurreko koben eta labar-pinturen sarearen interpretazio-zentroa sortuko litzateke, batez ere teknologia berrietan oinarrituta.
- Bizkaiko baseliza eta baserriak katalogatu, berreskuratu eta horiei balioa ematea, eta, horretarako, Bizkaiko eskualdeetan interes turistikoko ibilbideak sortzea.
- Tradizioen mantentzea onartu eta sustatzea, Bizkaiko kultura-identitatearen ezagutza kolektiboari laguntzeko.
- Bizkaian dauden aztarnategi arkeologikoei buruzko ikerketa-lana sendotzea. Emaizak zabaltzea eta berrezartzea.
- Bizkaiko Foru Artxibo Historikoaren digitalizazioan sakontzea, kontsulta publikoa errazteko.
- Kulturako lan-eremuak antolatzea, esperientziak trukatzeko baliabide gisa eta lurraldeko gazteek Bizkaiko historia- eta kultura-ondarearekin duten lehenengo harreman gisa. Bekak sustatzea.

Memoria historikoa

- Bizkaiko memoria historikoari buruzko ikerketa sustatzea: historiaren ikerketa-programetarako bekak eta laguntza udal- eta eskualde-eremuan.
- Memoria historikoaren ibilbideei kultura-, ondare- eta turismo-balioa emateko argitalpen, ikus-entzunezko eta seinalizatzen bidez zabaltzea, honako leku enblematikoetan, besteak beste: Gernika, Durango, Elorrio, Bilbo (Artxanda), Derioko hilerria, Saibigain, Bizkargi, Lemoatz, Burdin Hesia edo Santurtzi.

Kirola

- Erabilerako goi-mailako eta eskola-kiroleko jardueren lotutako kirol-ekipamenduak berritzeko inbertsio-plana.
- Kirol-instalazioen erabilera partekatua sustatzea. Bizkaiko kirol-txartela.
- Eskola-kiroleko programa zabala eta askotarikoa, lurraldeko eskola-umeen beharretara egokitzen dena eta haien hezkuntza-garapena jasotzen duena sustatzea.
- Eskola-kiroleko monitorearen ikastaroen eskaintza sustatzea eta horien ofizialtasunean aurrera egitea.
- 3k kirol-erakundeek kudeaketan bikaintasun-programa sustatzea.
- Kirolbide sustatzea, kirol-sektoreko profesionalen artean eguneratzeko eta ezagutza trukatzeko espazio gisa.
- Lurraldeko kirol-federazioei laguntza ematea, esleitutako funtzio publikoak betetzeko eta federazioei egonkortasuna ematen dieten lankidetzak-hitzarmenak berritzeko.
- Asfedebik (Bizkaiko Kirol Federakundearen Elkarteak) lurraldeko kirol-federazioei zerbitzuak eta baliabideak errazteko duen zeregina sustatzea.

- Lurraldeko kirol-agenteeekin koordinazio-egiturak sortzea eta dinamizatzea.
- Herritarren artean, oro har, eta, bereziki, gazteenen eta emakumeen artean, jarduera fisikoa sustatzea helburu duten kirol-jarduerak eta -ekitaldiak antolatzen laguntzea.
- Osasunaren eta kirolaren eremuan jarduera eta zerbitzuen programazioa sustatzea, batez ere zahartze aktiboarekin lotzen denari dagokionez.
- Kirol-teknifikazioko proiektuak egiten laguntzea.
- Bertoko kirolak sustatzea.
- Lurraldean esperantza eragiten duten kirolariei laguntza emateko azken agintaldi honetan hasi den programa sendotzea eta kirol-erakundeei eta maila gorenean lehiatzen diren kirolariei laguntza teknikoa, medikoa eta ekonomikoa ematea.
- Bizkaian kirol-ekitaldiak antolatzen laguntzea, bereziki duten dimentsioagatik jarduera ekonomikoaren eragile eta turista eta inbertsiogileen erakargarri bilaka daitezkeenak.
- Lurraldeko kirolariak eta taldeek nazioarteko eremuko lehiaketetan parte har dezaten sustatzea.

6) ESKUALDEKO GARAPENA: ESKUALDE GUZTIETARAKO AUKERAK

Bizkaiak bere eskualde eta udalerri guztiak behar ditu.

Bizkaiak eskualde-egitura aberatsa du, kostaldeko eta barrualdeko eskualdeak. Berezko identitatea duten eskualdeak, ekonomia-sektore tradizionalak, sektore turistikoak, erakunde erreferenteak. Funtsezkoa da eskualde guztiek beren potentziala garatzea eta garapen hori orekatua izatea: lurraldeko solidaritatea, gehien behar duten eskualdeetako proiektuak lehenetsiz. Integrala den garapena, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren eremuak hartzen dituen. Aldundiaren eta udalerrien arteko lankidetzaren ondoriozko garapena, politika bateratzaileak eta dinamizatzaileak egiteko.

Era berean, Bizkaiko udalerriek Aldundiaren laguntza ere behar dute. Ez bakarrik Udalkutxak dakarren finantza-laguntza handia (752 milioi euro 2014an), baita beste jarduera-mota bat ere, proiektu estrategikoen eta behar zehatzen aurrean.

2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO ARDATZ ETA EKINTZA NAGUSIAK

Eskualdeko ekonomia-garapena

- Eskualdeko hausnarketa estrategikoak egiteko laguntza, jarduera ekonomiko berriak sortzeko eta dauden enpresak garatzeko aukerak identifikatzeko, eskualde bakoitzaren gaitasun endogenoetan oinarrituta.
- Eskualdeak berraktibatzeke plan bereziak eta alde behartsuetan enplegua sustatzeko funts berezia abiaraztea.
- Lurzoru industriala lankidetzak publiko-pribatuaren bidez sustatzeko plan berria eta lurzoru industrial publikoa merkaturatzeko plan malguagoa eta lehiakorragoa.
- Eskualdeko enpresa eta agenteekin elkartzeko espazio egonkorak sortzea, Bilguneak, ekimen ekintzaileei laguntzeko tresnak hobetzeko eta dauden enpresen hobekuntzari eta garapenari laguntzeko.

Lankidetza hori lankidetza areagotzean oinarrituko da, eskualde bakoitzeko ekintzaileek eta enpresek Aldundiak eskaintzen dituen laguntzak eta zerbitzuak aprobetxatzeko, eskualdearen errealitatearen ezagutza, etengabeko harremana eta eskualde bakoitzean bere enpresekin duen etengabeko laguntza aprobetxatzen den aldi berean.

Merkataritza eta zerbitzuak

- Tokiko merkataritza-nukleoak aktibatzeke plana, ekintzaile berriei merkataritza-lokalak berriro irekitzeko zuzeneko laguntza-neurrien bidez.
- Saltoki txikien zeregina berrindartzea, tokiko dinamizatzailer eta enplegu-sortzaile gisa, eta lurraldeko kontsumoa dinamizatzeko ekimenak garatzea.
- Merkataritza-eremuan ekimen berritzaileak garatzea eta saltoki txikietan enpresa eskualdatzeko protokolo eta programen abiaraztea erraztea.
- Bizkaiko gune historikoetan turismoa eta merkataritza suspertzeko planak diseinatzeko eta garatzeko laguntza.
- Bizkaiko eskualde guztietan turismoa garatzea eta, horretarako, eskualdeko turismo-baliabideei balioa ematea, ibilbideen eta esperientzien eskaintza erakargarria sortzeko estrategiaren bidez.
- Bizkaiko artisautzaren sustapena eta sektorearen kudeaketaren eta lehiakortasunaren hobekuntza sustatzea.

Lehen mailako sektorea

- Lehen mailako sektorea garatzea, bere produktuei balio handiagoa eta merkaturatzeko bideak aurkitu behar dizkien sektore ekonomiko gisa eta lurraldearentzako oinarritzko jarduera gisa, ingurumenaren, populazioaren eta lurralde-kohesioaren ikuspegitik.
- Gehiago garatzea eta ekoizpen ekologikoaren merkaturatzea hobetzea.
- Lehen mailako sektorearen jardueretan belaunaldi-erleleboa sustatzea.
- Bizkaiko ustiapenen modernizaziorako eta eraginkortasunerako laguntza ematea.
- Sektoreko profesionalentzako puntako teknologiak sortu eta eskura dadin sustatzea.
- Europako laguntzen eskurapena erraztea, nazioarteko aukerei buruzko zabalkunde- eta aholkularitza-zerbitzuaren bidez (*ikus proiektu estrategikoa 47. orrian*).
- Burokrazia murriztea, sektoreari laguntzak emateko.
- Bikaintasunerako laguntza ematea eta Bizkaiko txakolinak eta beste produktu batzuek nazioarteko zirkuituetan duten presentzia sustatzea.
- Mendien foru-arauaren proiektua.
- Animalien ongizate-plana.
- Sektore honek herrialdeari eskaintzen dizkion berezko balioak eta kultura komunikazio-mailan sustatzea.

Gizarte-garapena eta eskualdeko azpiegituren garapena

- Bizkaiko gune historikoei balioa emateko udalekin lankidetzan jardutea.
- Bizkaiko eskualdeetako udalerri nagusietan, Aldundiaren arreta integraleko leihatilak sortzea (*ikus proiektu estrategikoa 50. orrian*).

- Familiartekoak zaintzen dituzten pertsoneri “atseden hartzeko” zerbitzua eskaintzen dien Zainduz programa Bizkaiko eskualde guztietara zabaltzea.

Ingurumen-garapena

- Bosgarren edukiontzia pixkanaka ezartzea (edukiontzi marroia), hondakin organiko biodegradagarriaren gaikako bilketa egiteko, horren konposta sustatzeko.
- Sentsibilizazioko eta ingurumen-hezkuntzako jarduerak garatzea, eta ingurumen-prebentzioan aurrera egiteko kontzeptua azpimarratzea.
- Paisaia hobetzea. Baliabideak jarri behar dira gure paisaia mantentzeko eta balioa emateko eta, horretarako, hura kaltetzen duten esku-hartzeak zuzendu behar dira.
- Energia garbiak sortzeko bide berriak aztertzea eta ustiatzea, besteak beste, biomasaren aprobetxamendua, eskuragarri dauden baliabideen ezagutza sakonaren eta ustiapenaren bideragarritasuna teknologikoaren eta ekonomikoaren gaineko analisien bidez.
- Bertoko espezieen baso-ekoizpena sustatzea, bai ustiategi publikoetan, bai eremu pribatukoetan.
- Politika zuzentzaileetatik prebentziozko politiketara igarotzeko gizarte-kontzientziazioarekin jarraitzea.
- Efizientzia eta energiaren aurrezpen handiagoa dakarten jarduketak ezartzea.
- Ingurumenaren inguruan Eusko Jaurlaritzarekiko eta Bizkaiko udalerriekiko koordinazioa indartzea.
- Bizkaiko Foru Aldundiko sail guztietan jasagarritasunaren aldagaia sartzea.
- Lurraldeko balio naturalak areagotzeko jarduketak garatzea, zenbait esperientzia-ildotan jarraituz, besteak beste: Urdaibaiko Bird Center, parke naturalak, biosferaren erreserba, Getxoko aquariuma...
- Bizkaiko biztanle guztiek ur- eta saneamendu-zerbitzu bera izateko laguntza ematea.
- 2005-2016rako Bizkaiko Hiri Hondakinen Kudeaketarako II. Plan Integralaren luzapen adostua, 2020ra arte, helburuak EBren Hondakinen Esparru Zuzentarauari egokitzeko.
- Lurraldeko eskualde guztietan konposta egiteko instalazioak pixkanaka garatzea.

Udal-garapenerako laguntza ematea

- Bizkaiko udalerriak modernizatzeko lanean sakontzea, administrazio-karga gutxitu ahal izateko interes komunez aplikazioak garatzeko eta hobetzeko eta e-administrazioan, parte-hartzean eta gardentasunean aurrera egiteko, sareko lanaren sinergiak aprobetxatuz.
- Udalerrientzako finantza-babeserako lana indartzea, laguntza eta aholkularitzaren ikuspuntutik.
- Bizkaiko udalentzako zerbitzu- eta laguntza-katalogoa zehaztea, Aldundiak Bizkaiko udalerriei laguntzeko konpromisoak eta arloak argiago ezartzen dituenak.
- Zerbitzuen erkidetzea sustatzea eta horretarako laguntza ematea, betiere udal-autonomia erabat errespetatuz, sinergiak aprobetxatzeko, kostuak murrizteko eta eskualde bakoitzeko biztanleei zerbitzu hobeak emateko.

7) KOMUNIKAZIOAK: KONEXIOAK ERRAZTU

Komunikazioen azpiegiturak eta garraio publikoko zerbitzuak beharrezko elementuak dira Bizkaiko hazkuntza ekonomikorako, lehiakortasunaren hobekuntzarako eta enplegurako. Kalitatezko garraio-zerbitzuen garapenean laguntzeak eskualdeen arteko kohesioa eta garapen orekatua bermatzen du.

Lurralde-oreka eta mugikortasun jasangarria ikuspegi estrategikotik sustatu behar dira. Aurrekontu mugatuaren egungo egoeran, nahitaez zehaztu behar da zein azpiegitura den benetan beharrezkoa, lehenetsun-, jasangarritasun- eta eraginkortasun-irizpideen arabera. Eta ezin dugu ahaztu jarraitu behar dugula gure errepideak behar bezala mantentzeko baliabideak bideratzen, horien segurtasuna hobetzen duten ekintzak barne.

Garraio publikoa dela eta, Bizkaia garraiobide-eskaintza zabala eta balioetsia du, arrazoizko prezioekin eta baliabide gutxien duten kolektiboentzako hobarien eskaintza handiarekin. Erronkak izan behar du eskaintza hori sendotzea eta zabaltzea, bai helmuga estrategikoei dagokienez, bai periferiako udalerritxikiei dagokienez.

2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO LEHENTASUNEZKO OINARRIAK ETA EKINTZAK Errepideak

- Bidesarea Eginez Plana (ikusi 51. orrialdeko proiektu estrategikoa). 100 milioi euroko inbertsioa Bizkaiko eskualde guztietako errepideetan esku hartzeko.
- Bizkaiko udalerriei aholkularitza eskaintzea, abiadura-murritzailak eta zeharkako bandak jartzeko.
- Istripu gehien izaten diren tarteei buruzko komunikazio gardena indartzea, tarte horietan prebentzioa areagotzeko.
- Bizkaiko errepideen zarataren mapa garatu eta gauzatzea.
- Lurraldeko hirietako zeharkaleetan oinezkoen segurtasuna bermatzeko hobekuntzen azterlana egitea.

Garraio publikoa

- Abiadura Handiko Trena inplikaturako instituzioen artean adostutako epeen barruan Bizkaia hel dadin sustatzea.
- Bizkaiko garraio publikoaren prezioetan errentaren irizpideak sartzea.
- Bizkaibusen autobusen flota berritzea, ondorengo irizpideak aplikatuz: segurtasun gehiago, kutsadura gutxiago eta irisgarritasun gehiago.
- Bizkaitaxi zerbitzua sustatzea, garraio publikoa biztanle gutxien dituzten Bizkaiko udalerrietara heltzeko tresna modura.
- Metroaren 3. linea martxan jartzea (ikusi 53. orrialdeko proiektu estrategikoa).
- Metroaren luzapen berrien bideragarritasun ekonomikoa aztertzea, Eusko Jaurlaritzarekin batera.
- Mugikortasuna sustatzea eta disuasio-aparkalekuen sarea handitzeko aukera aztertzea.

Bizikleta

- Bizkaiko Bizikleta Plan Nagusi berri bat egitea, bizikleta lanerako, ikastera joateko eta aisiarako garraiobide modura erabiltzea sustatzen jarraitzeko, eta baita landa-guneetara hurbildu eta

haiek ezagutzeko bide modura erabiltzeko ere, garapenari mesede egiteko eta Bizkaia modu eraginkorrean egituratzeko.

- Bidegorrien sarea handitzea, hiriguneetan ohiko garraiobide modura erabil dadin.

8) EUSKARA: EUSKARA ERABILI: GEHIAGO ERABILTZEA BIZIA EMATEA DA

Euskara da euskaldunon ondarerik garrantzitsuen. Erkidego modura biziraun nahi badugu, gizartean erabiltzen den hizkuntza izan behar du euskarak. Gainera, zaindu egin behar dugu. Aldundiaren betebeharra da euskara sustatzea eta zaintzea. Euskararen Normalizazioari buruzko Legean xedatutakoaren arabera, euskal botere publiko guztiek bizitza sozialaren alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartu beharko dituzte eta horretarako baliabideez dohatu beharko dira.

Bizkaia da aldi berean euskaldun gehien eta gutxien dituzten eskualdeak dituen Euskadiko lurralde historikoa. Dibertsitate hori dela-eta, errealitatea bere gain hartuko duen hizkuntza-politika bat behar dugu.

Bizkaiko gazteak dira euskararen etorkizunaren gako estrategikoa. Gure gazteen erdia baino gehiagoren bigarren hizkuntza da euskara. Institutuzioetatik euskarazko aukerak eta espazioak sustatu behar ditugu, gazteek erabiltzen dituzten baliabide eta bideak erabiliz.

Azkenik, Bizkaiko euskalkia babestu behar dugu. Munduko hizkuntza guztietan, dialektoak dira gatza eta piperra, haien bizitasunaren erakusgarria. Euskararen kasuan ere hala da. Zorionez, euskara batua daukagu. Baina hitzun gehien dituen dialektoa ere daukagu. Zaindu eta erabili behar dugun dialektoa.

Euskara: denon aukera, denon hizkuntza, denon erronka.

2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO LEHENTASUNEZKO OINARRIAK ETA EKINTZAK

Bizkaiko gizartean euskara ikasi, erabili eta normalizatu dadin bultzatzea

- Eskualde bakoitzaren euskalduntze maila desberdinak kontuan hartzen dituen hizkuntza-politika zehaztu eta bultzatzea.
- Euskara zeharka sustatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduketa eta programa guztietan ([ikusi 55. orrialdeko proiektu estrategikoa](#)).
- Gaur egun Bizkaian euskara suspertzeko ditugun tresnak sendotzea: Euskararen Aholku Batzordea, HAKOBA Hizkuntz Politikaren Batzordea, Alkarbide (euskararen euskal zerbitzuak biltzen dituen foroa) eta Euskera Bizia Batzordea (Bizkaian euskara hedatzeko lan egiten duten erakunde eta instituzio nagusiak barne hartzen dituen foroa).
- Bizkaieraren erabilera babestea.
- Aisian eta kirolean euskara erabiltzeko bultzada espezifiko ematea.
- IKTetan euskararen presentzia sendotzeko eta erabilia izateko bultzada ematea.
- Diru-laguntzak kontsolidatzea, Bizkaiko enpresetan euskara ezartzera bideratutakoak, komunikabideentzakoak eta Bizkaiko gizartean euskararen erabilera sustatzen duten elkarteentzakoak batez ere.

Euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzea Aldundian eta Batzar Nagusietan

- Aldundiko eta Batzar Nagusietako EAJ-PNV taldeak bere jardueran publikoan euskara erabiltzearen aldeko konpromisoa hartu du.
- Guztiz elebiduna den administrazioa izateko aurrera pausu gehiago ematea, herritarrei zerbitzuak nahi duten hizkuntzan eskainiz. Euskararen Erabilera Normalizatzeari Plana bultzatzea.
- Foru enpresa eta erakundeetan euskara hobeto erabiltzeko jarduketak zehatz batzuk garatzea.

Euskarazko kultura suspertzea

- Euskarazko kultur produktu eta jardueren garapena sustatu eta babestea.
- Euskararen Etxeen sare bat sortzea eskualdeetako herriburuetan, euskara sustatzen duten erakundeen topagune modura erabiltzeko.
- Azkue Fundazioa euskarazko eduki teknologikoen buru bihurtzea.
- Kulturartekotasuna sustatzea, beste kulturekin harreman ona izateak guk daukagunari balioa ematea ahalbidetzen duela uste dugulako.
- Teknologia berriek euskarazko kultura sortzeko, sustatzeko eta kontsumitzeko eskaintzen dituzten aukerak aprobetxa daitezen bultzatzea.
- Labayru Institutuaren Plan Estrategikoa ezar dadin babestea, bereziki haren programak hedatzeko eta ikusgarri egiteko proiektuak.
- Bizkaia Irratiaren audio funtsak katalogatzen eta digitalizatzen bukatzea.

9) KUDEAKETA: BIZKAIA IREKIA: ALDUNDI GARDEN ETA HURBILAGOA

Kudeaketa da ekintza politikoaren gakoa. Ideia onak izatea ez da nahikoa, ideia horiek gauzatzeko gaitasuna ere izan behar baita, emaitzak lortzeko. Eta emaitza horiek legaltasuna errespetatuz eta guztionak diren baliabideak zentzuz erabiliz lortu behar dira.

EAJ-PNVk esperientzia handi eta aitortua dauka Bizkaiko Foru Aldundiaren buruan egindako kudeaketan. Bizkaia egungo erreferentziazko lurralde bilakatu duten proiektu txiki eta handiak arrakastaz kudeatzeko gai izan gara. Kudeaketan arrakasta izateko gaitasun hori mantentzea behar du Bizkaia, eta aldi berean Bizkaiko gizarteak eskatzen dizkigun eta guk sinesten ditugun gako berriak indartzea: gardentasunez jokatzeko eta eragiketen berri ematea, parte hartzea, arrazionalizatzea eta eraginkorrak izatea eta ekonomikoki iraunkorrak diren politikak gauzatzeko.

Bizkaiko ekonomia, gizarte eta lurraldea garatzeko beharrezkoa den kudeaketaren bikaintasuna mantendu eta indartu nahi dugu. Kudeaketa bikaina eta kudeaketa irekia. Bizkaia Irekia, are eraginkorragoa, gardenagoa eta hurbilagoa den Aldundiarekin.

2015-2019 LEGEGINTZALDIRAKO LEHENTASUNEZKO OINARRIAK ETA EKINTZAK

Bizkaia Zabaltzen gardentasun plana (ikusi 54. orrialdeko proiektu estrategikoa)

Bizkaia Zeugaz parte-hartze plana (ikusi 54. orrialdeko proiektu estrategikoa)

Eraginkortasuna eta arrazionalizazioa

- Aldundiaren eta bere menpeko erakundeen ohiko gastua are gehiago murriztea, gastuaren ikuskaritzak eginez eta sailen arteko lantaldeak sortuz.
- Aldundiak erositako horniduren kostua murriztea ahalbidetzen duen erosketen zentral bat sortzea. Zentralera batu eta parte hartu nahi duten Bizkaiko udalerriek hala egin ahalko dute.
- Foru sozietateak eta erakundeak arrazionalizatzeko plana egitea.

Planifikazioa, ebaluazioa eta kalitatea

- Aldundiak Bizkaiko herritarren alde hartuko dituen konpromisoak zehaztuko dituen legegintzaldi plana egitea.
- Legegintzaldiko plan horren betetze mailaren urteroko ebaluazioa eta amaierakoa egitea.
- Legegintzaldian zehar garatuko diren plan sektorialak zehaztea egutegiaren kudeaketaren lehenengo hilabeteetan.
- Plan sektorialak egitea, eragile adierazgarrien parte-hartzearen estrategia baliatuz.
- Plan sektorial horien urteroko ebaluazioa eta amaierakoa egitea, orokorrean plan horien hartzaileen gogobetetze-ebaluazioa, gauzatu izanaren adierazleak eta lortutako eraginaren estimazioa barne hartuz.
- Plan eta ebaluazio guztiak gardentasunez argitaratzea.
- Foru zerbitzu nagusien zerbitzu kartak egitea, hartzaile kopuruaren eta/edo garrantzia ekonomikoaren arabera. Karta horietan argi eta garbiz ehaztu beharko dira erabiltzaileek dituzten eskubideak eta Aldundiak bere gain hartzen dituen kalitate-konpromisoak.

Herritarrei arreta eta informazioa eskaintzea

- Aldundiaren arreta integrala eskaintzeko leihatilak jartzea Bizkaiko eskualdeetako herriburuetan. Gertu programa ([ikusi 50. orrialdeko proiektu estrategikoa](#)).
- Herritarrei foru zerbitzuetan izandako aldaketak eta bestelako gertaerak jakinarazteko eta informazioa emateko bideak sendotzea.
- www.bizkaia.net eta herritarrei informazioa emateko beste aplikazio batzuk hobetu eta eguneratzea.
- Herritarrei informazioa emateko on-line baliabideen erabilera aurrera pausuak ematea.

e-administrazioa

- Aldundiak eskaintzen dituen e-administrazioaren zerbitzuak ezagutzera emateko komunikazio-kanpaina bat egitea eta zerbitzu horien erabilera sustatzen jarraitzea.
- Foru kudeaketarako aplikazio teknologikoak eguneratzen eta hobetzen jarraitzea.
- Aldundiaren eta beste administrazio batzuen arteko operabilitatean aurrera pausuak ematen jarraitzea, herritarren izapidetzeak errazteko, jada beste erakunde batzuek baduten dokumentazioa aurkezteko beharrezana izan ez dezaten.
- Zergen kudeaketa
- Zerga-iruzurraren aurkako borrokarako urteroko planak areagotzea.
- Fiskalitate berdearen formula berriak sartzearen bideragarritasuna aztertzea.

Instituzioen arteko lankidetza eta harreman estrategikoak

- Bizkaiko udalerri eta eskualdeekiko harremana sakontzea, lurraldearen eskualde-egituraren aurrera egiteko (ikus lehentasunezko lerro espezifikoak).
- Bilbao-Bizkaia aliantzan sakontzea.
- Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzan sakontzea Bizkaiko bizi-kalitaterako eta garapenerako berebizikoak diren alorretan, esaterako: gizarte zerbitzuak, garraio publikoa, ekonomiaren sustapena eta lehen sektorearen garapena.
- Aldundiak gure lurraldeko unibertsitateekin duen harreman estrategikoa sakontzea.
- Aldundiak aireportuarekin eta Bilboko Portuarekin duen harreman estrategikoa mantentzea. Europako negozio puntu nagusiekin aireko lotura zuzenak izatea eta portu lehiakorra izatea berebizikoa da gure etorkizunerako.
- Elkarre-sarearekin harreman estrategikoa izateko dinamika egituratua ezartzea, lankidetzaren publiko-pribatua bultzatzeko.

10) LURRALDE-ALIANTZA: BILBOREKIKO ALIANTZA ESTRATEGIKOA SENDOTZEA, BIZKAIA OSOARI MESEDE EGITEKO

Mundua eta ekonomia gero eta globalizatuago dauden honetan, mundura zabaldu behar gara eta lurralde erakargarri eta lehiakor bilakatu behar dugu Bizkaia. Erakargarria izan behar du nazioarteko inbertsioarentzat eta turismoarentzat. Lehiakorra izan behar du balio erantsi handia duten produktu eta zerbitzuak mundu osoan eskaintzeko gai diren enpresa lehiakorrak dituelako.

Kokapen lan honetan, Bilboren irudia aprobetxatu behar du Bizkaia, nazioartean irudi bikaina duen hiria delako eta hiri-eraldaketaren eta suspertze sozioekonomikoaren adibide ezaguna delako. Gainera, kultur eskaintza handia du eta nazioartean ezaguna den ikonoa du: Guggenheim Bilbao.

Horregatik da garrantzitsua Aldundiak azken urteotan sustatu duen Bilborekiko aliantza estrategikoa sendotzea. Batera joanda puntuak irabazten ditugulako. Bilbao-Bizkaia lurralde erakargarri eta lehiakor modura saltzen dugunean, Bilbok eta Bizkaia biek irabazten dutelako. Eta Bizkaiko eskualde guztiek irabazten dute.

BILBAO-BIZKAIA ALIANTZAREN GARAPEN-EREMUAK

- Bilboko Euskal Museoa berritzea eta bultzaberritzea.
- Turismoa sustatzea, Bilbao Bizkaia be basque markarekin.
- Bilbao-Bizkaia marka Bizkaientzako interes estrategikoa duten nazioarteko foro, azoka eta ekitaldietan etengabe sustatzea.
- Bizkaian azokak eta kongresuak egiteko ditugun azpiegiturak hobetu, sendotu eta koordinatzea.
- Kongresu, foro eta mintegi profesionalak modu aktiboagoan erakartzea.
- Bilbao-Bizkaia turismo-fluxuak modu antolatuan heltzea ahalbidetzen duten touroperadoreekin akordio estrategikoak lortzea.

- Jarduketen programa garatzea, Unescoren Diseinu eta Sormen Hirien Sarearen esparruan.
- Ekintzailetzarekin erlazionatutako nazioarteko foroetan presentzia aktiboa izatea, eskualde ekintzaileen mundu mailako sarearen lankidetzaz sendotzeko.
- Inbertsioak eta talentua erakartzea.
- Hiri-dinamikei estuki lotutako sektore ekonomikoak garatzea eta Bilbo Metropolitarraren kontzeptua indartzea.
- Bilboren eta Bizkaiko beste eskualde batzuen arteko lankidetzaz sustatzea, turismoaren alorrean balioak diren eskaintzak sortzeko eta hainbat eskualderen produktu turistikoak barne hartzen dituzten eta Bizkaia bisitatzen dutenen esperientzia aberasten duten “esperientzia-paketeak” elkarrekin diseinatu eta sustatzeko. Lurralde osoari balioa ematea kalitatezko helmuga turistikoa modura.

10 PROIEKTU ESTRATEGIKO

- 1# Bizkaian nazioarteko enpresak ezartzeko programa, Doing Business in Biscay
- 2# Bizkaiko enpresek eta herritarrek nazioartean dituzten aukerei buruzko hedapen eta aholkularitza zerbitzua
- 3# Energy Intelligence Center (EIC)
- 4# 10.000 lanpostu sortzeko pizgarrien programa
- 5# Aldundiaren arreta integrala eskaintzeko leihatilak Bizkaiko eskualdeetako herriburuetan, Gertu programa
- 6# Bizkaiko bide-sarea hobetzeko plan integrala, Bidesarea eginez
- 7# Gizarte-laguntzen Ikuskapen Zerbitzua
- 8# Metroaren 3. linea eta Abiadura Handiko Trenaren etorrera
- 9# Gardentasunerako foru plana, Bizkaia Zabaltzen, eta herritarren parte-hartzerako foru plana, Bizkaia Zeugaz
- 10# Bizkaiko Foru Aldundiaren sail eta erakundeen programa guztietan euskararen sustapena, ingurumenaren iraunkortasuna eta berdintasuna sartzea.

1# BIZKAIAN NAZIOARTEKO ENPRESAK EZARTZEKO PROGRAMA, DOING BUSINESS IN BISCAY

GARRANTZITSUA BIZKAIARENTZAT

- Bizkaian kalitatezko enplegua sortzeko beharrezko elementua izan da eta izan behar da nazioarteko enpresak erakartzea.
- Erakarritako enpresek sortutako jarduera ekonomikoak diru-sarrera gehiago dakartza eta horrekin batera, gure zerbitzu publikoak finantzatzeko gaitasun handiagoa.
- Enpresa berriak pizgarria dira gure ekonomia-sarearentzat, elkarlanean arituz hazteko aukerak eskaintzen dituztelako.

FUNTSEZKO ELEMENTUAK

- Bizkaiak enpresa berriak ezartzeko lurralde berritzaile eta erakargarri modura duen irudia indartzea.
- Merkataritza-ekintza proaktiboa sustatzea, batez ere Bizkaiko Adimendun Espezializazioaren lehentasunezko sektoreetan esfortzua eginez.
- Zuzeneko pizgarriak indartzea, betiere erakarritako enpresei Bizkaian geratzeko konpromisoa eskatuz. Zorroztasunez kontrolatzea baldintza horiek betetzen direla.
- Beste zerbitzu batzuk sendotzea, neurria egindako eskaintza lehiakor bat eraikitzeke, hots, Doing Business in Biscay Programa:
- Lurzorurako, pabilioietarako eta bulegoetarako sarbidea izatea.
- Finantzaketarako sarbidea izatea.
- Proiektuan sartu beharreko tokiko giza baliabideak modu zehatzean bildu eta prestatzea.
- Zuzendaritza talde atzerriratuen eta beren familien integrazio kulturala bultzatzea.
- Lizentziak eta baimenak azkar izapidetzea, “leihatila bakarraren” kontzeptupean.

2# BIZKAIKO ENPRESEK ETA HERRITARREK NAZIOARTEAN DITUZTEN AUKEREI BURUZKO HEDAPEN ETA AHOHKULARITZA ZERBITZUA

GARRANTZITSUA BIZKAIARENTZAT

- Gure enpresak eta pertsonak mugitzen diren joko-eremuaren mugak handitzea planteatzen du globalizazioak. Gaur egun enpresak eta talentua lehian ari dira mundu mailan.
- Europako esparruak eta oro har munduak eskaintzen dizkigun aukera guztiak aprobetxatzea berebizikoa da talentua garatzeko eta Bizkaia lehiakorragoa izateko.
- Horretarako ezinbestekoa da aukera horiek identifikatu eta zabaltzea eta horrez gain pertsonen eta enpresei aholkuak, laguntza eta babesa eskaintzea.

ZERBITZU-EREMUAK

ENPRESAK	TALENTUA
I+G+b programa europarrak	Bikaintasuneko prestakuntza
Sektoreen garapenerako programak	Ikerketa-programak
Negozio aukerak	Praktikak enpresetan
Aliantza estrategikoak eta lankidetzarako aukerak	

3# ENERGY INTELLIGENCE CENTER (EIC)

GARRANTZITSUA BIZKAIARENTZAT

- Bizkaiko BPGren % 7,5 da energiaren sektorea eta gaur egun zuzeneko 22.000 lanpostu ematen dizkio gure ekonomiari.
- Haziz doan eta aukera garrantzitsuak eskaintzen dituen sektorea da, bereziki energia berriztagarrien eta eraginkortasun energetikoaren alorretan.
- Lehiakortasun-faktore argiak ditu Bizkaiak, bereziki mundu mailan nagusi diren enprekin eta I+G+b-tik abiatuz gure enpresa-sarea garatzen lagun dezaketen eragile zientifiko-teknologikoekin.
- Automotive Intelligence Center izeneko automobilgintzako zentroa Amorebieta-Etxanon dago eta bere esperientziak argi erakutsi du enpresen arteko eta enpresen eta eragile zientifiko-teknologikoen arteko lankidetzarako espazioak izateak negozioa eta enplegua sortzeko aukerak eskaintzen dituela.

FUNTSEZKO ELEMENTUAK

- Sektoreko enpresak lankidetzan aritzeko espazioa
- Energia berriztagarrien eta eraginkortasun energetikoaren alorreko ezagutzarentzako eta talentuarentzako espazioa
- Bizkaiko energiaren sektorearen nazioarteko leihoa, merkatuko kokapenerako zein enplegua sortzeko ahalmena duten enpresak eta proiektuak erakartzeko.

4# BEHARRIZAN GEHIEN DUTEN KOLEKTIBOETAN 10.000 LANPOSTU SORTZEKO PIZGARRIEN PROGRAMA

GARRANTZITSUA BIZKAIARENTZAT

- Enplegurako aukera zehatzak eskaini behar zaizkie lanpostu bat lortzeko zailtasun gehien dituzten kolektiboek. Legegintzaldi honetan 10.000 bizkaitarrek programa honen bidez lanpostu bat lortzea da helburua.
- Enpresek lanpostu berriak sor ditzaten sustatzea izango da oinarrizko tresna. Gainera, behar duten kolektiboen kasuan, prestatzeko eta birkualifikatzeko ekintzak egingo dira, pertsona horiek gure enpresek eskatzen dituzten profil profesionala lor dezaten.

FUNTSEZKO ELEMENTUAK

- Langabezian denbora luzea daramaten pertsonak: Erakunde eta enpresei langabezian denbora luzea daramaten 2.000 pertsona birkualifikatzeko eta kontratatzeko planak martxan jartzeko diru-laguntzak ematea.
- Gazteak: Gaztenplegua programa martxan jartzea, legegintzaldi honetan zehar 4.000 gaztek lana lor dezaten: 1.500 gazteri enplegurako lehenengo aukera ematea; 1.500 gazterentzako kalitatezko kontratazio iraunkorra sustatzea; 1.000 gazte profesionalki hobeto gaitzeko eta laneratzeko ekimen konbinatuak gauzatzea.
- 45 urtetik gorako pertsonak: Lan Berri Senior programa berria, langabezian dauden eta 45 urtetik gora dituzten 2.000 pertsona berriz laneratzeko. Krisialdian kontratuak deuseztatzeko egindako EEEk eta enpresak itxi izanak biziki kaltetu du kolektibo hori eta esperientzia eta gaitasun profesional handia dute.

5# ALDUNDIAREN ARRETA INTEGRALA ESKAINTZEKO LEIHATILAK BIZKAIKO ESKUALDEETAKO HERRIBURUETAN, GERTU PROGRAMA

GARRANTZITSUA BIZKAIARENTZAT

- Lurraldeko eskualde guztietatik Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzu guztietara sarbidea izatea ahalbidetzea, inora joateko beharrianik ez izateko.
- Bizkaiko Foru Aldundia lurraldeko pertsona guztiengana hurbiltzea.
- Bizkaiko eskualde guztien garapen orekatua bultzatzea.

FUNTSEZKO ELEMENTUAK

- Arreta eta informazioa eskaintzeko eta izapideak egiteko lehiatilak
- Hurbiltasun fisiko handiagoa eta herritarren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko komunikazioa eta harremana, on line kanalak posible egin eta promozionatzen diren bitartean, “360º-ko arreta” kontzeptuan oinarrituz.

ERREPIDEAK HOBETZEKO PLANA, BIDESAREA EGINEZ

GARRANTZITSUA BIZKAIARENTZAT

- Azken hamarkadetan, Bizkaiak egoera ekonomiko onak lagunduta, kudeaketa egokia eta ikuspegi estrategikoa garatu ditu Bizkaiak. Lurraldea antolatu duen bide-azpiegitura handien mapa osoa egin du eta mugikortasuna erraztu du. Egungo egoera ekonomikoa guztiz desberdina da eta gizartearen lehentasunak ere guztiz aldatu dira: orain pertsonak dira garrantzitsuena. Bizkaiko Foru Aldundiak ez du obra handirik gauzatuko, hurrengo lau urteetan ez behintzat. Martxan dituenak bukatuko ditu eta ehun milioi euroko inbertsioa egingo du lurraldeko bide-sarea hobetzeko plan integral bat abiarazteko. Plan horrek legegintzaldi honetan zehar eskualde guztietan errepideak egokitzeko eta hobetzeko obrak egitea eta orain dauzkagunak behar bezala kontserbatzea ahalbidetuko du .

7# GIZARTE-LAGUNTZEN IKUSKAPEN ZERBITZUA

GARRANTZITSUA BIZKAIARENTZAT

- Gizarte-laguntza guztietan iruzurraren aurkako kontrola indartzeko eskatzen ari dira herritarrek. Diru-laguntzen jarraipena eta kontrola modu eraginkorragoan egin behar da, benetan behar dutenei bakarrik ematen zaizkiela bermatzeko.
- Kontrola hobetzen bada, bizi duten egoera pertsonala, soziala edo familiar bertan duten egoera dela-eta, bizitza normal, duin eta osoa eduki ezin duten herritarrei zuzendutako zerbitzuen iraunkortasuna eta eraginkortasuna hobetzen da. Gainera, kontrol horrek balioa ematen die gizarte-laguntzen benetako funtzioari (inklusio eta kohesio sozialerako tresna dira) eta gizartearen barruko desberdintasunak gutxitzen laguntzen du.

FUNTSEZKO ELEMENTUAK

- Ikuskapen zerbitzu berria sortzea.
- Inplikaturako instituzio eta eragileen arteko informazio-sistemen operabilitatea, laguntzen jarraipena eta kontrola hobetzeko.
- Onuradunei bisita presentzial gehiago egitea.
- Aldizka zorrotzasunez eta gardentasunez ematea funtsezko elementu horiek gure gizartean duten benetako eraginari buruzko informazioa, marmar faltsuak desmitifikatzeko eta kolektibo jakin batzuekiko estigma ekiditeko. Eta zorrotzasun eta gardentasun berdinarekin, hautemandako eta konpondutako iruzur mailari buruzko informazioa ematea.

8# METROAREN 3. LINEA ETA ABIADURA HANDIKO TRENAREN ETORRERA

GARRANTZITSUA BIZKAIARENTZAT

- Bizkaia eta bere eskualdeak modu orekatuan haz daitezen beharrezkoa da adimendun garraio publikoaren zerbitzuak garatzea, ondo dimentsionatuta daudenak eta ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik iraunkorrak direnak.
- Metroaren 3. linea berria 2016an martxan hasia aurreikusten da eta lotura berriak eskainiko ditu Bizkaiko udalerrien artean.
- Bizkaia berebiziko puntua da Atlantikoko eta Mediterraneoko garraio-ardatzen artean, eta kokapen geografiko estrategiko hau defendatu eta bermatu behar dugu. Abiadura Handiko Trena 2019an iristea aurreikusten da eta Europarekiko, estatuarekiko eta Euskadirekiko lotura iraunkor, azkar, seguru eta eraginkorra eskainiko digu.

FUNTSEZKO ELEMENTUAK

- Garraiobide berriek mesede egingo diote Bizkaiko eskualdeen arteko konektibitateari, lurraldearen garapen armoniatsu eta orekatua bultzatuz.
- Barneko lekualdaketen iraupena murrizteak eta Madrilekiko eta Parisekiko lotura hobetzeak enpresen dinamismoa eta lurraldearen garapen ekonomikoa bultzatuko dituzte.
- AHT Bizkaiaira heltzeak Europako enpresekiko eta oro har Europako talentuarekiko lotura ekarriko du, eta lurralde osoaren garapenari bultzada emateko aukera bakana izango da.

9# GARDENTASUNERAKO FORU PLANA, BIZKAIA ZABALTZEN, ETA HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO FORU PLANA, BIZKAIA ZEUGAZ

GARRANTZITSUA BIZKAIARENTZAT

- Herritarrek gero eta gardentasun eta parte-hartze handiagoa eskatzen ari dira eta horrek zerbitzu publikorako bokazio handia duen buruzagitza politikoa eskatzen du, beti zintzasunez eta gardentasunez kudeatzeko konpromisoa hartuko duena.
- Era berean, irekia den Aldundia bultzatu behar dugu, non herritarren parte-hartzea guztion artean Bizkaia hobe bat eraikitzea ahalbidetzen duen elementu estrategikoa den.

FUNTSEZKO ELEMENTUAK

- Gardentasunari eta gobernu onari buruzko estatuko araudia eta euskal araudia betetzea, eta Bizkaiko Foru Aldundiari eta Batzar Nagusiei gardentasunaren eta eragiketen berri ematearen alorretan aplikatu dakiekeen foru arau bat sortzea.
- Bizkaia Gardena izeneko gardentasunaren foru atarian hizkera ulergarriagoa erabiltzea, herritarrei zuzendua dagoena, emandako informazioa benetan gardena izan dadin.
- Datuak kode irekian argitaratzea, herritarrek Bizkaia Gardena atarian argitaratutako informazioaren inguruko analisi propioak egin ahal izateko.
- Aldundiaren menpe dauden erakunde guztiei ere gardentasuna eskatzea, hots, foru organismo, sozietate eta fundazioei.
- Parte hartzeko atari bat sortzea.
- Herritarrek parte hartzeko eta erabakiak hartzerakoan haiek ere erantzukizuna izateko espazio eta tresna berriak sortzea.
- Teknologia bizkaitarren parte-hartzea errazteko euskarri modura aprobeztatzea.

10# BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN SAIL ETA ERAKUNDEEN PROGRAMA GUZTIETAN EUSKARAREN SUSTAPENA, INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA ETA BERDINTASUNA SARTZEA

GARRANTZITSUA BIZKAIARENTZAT

- Bizkaiko Foru Aldundiak euskararen erabilera, ingurumenaren babesa eta genero berdintasuna sustatzeko tresna eta programa zehatzak ditu.
- Aldundiaren menpeko sailek eta erakundeek garatutako beste programek ere Bizkaiarentzat garrantzi handikoak diren zeharkako helburu horiek sustatzen jarraitzeko aukera ematen dute, helburu sektorial nagusiak betetzeko aukera emateaz gain.

Genero berdintasunaren alorrean arrakastaz burutzen ari da lan hori. Politika hau euskara eta ingurumena sustatzeko ere erabiltzen hasteko ordua da.

FUNTSEZKO ELEMENTUAK

- Bizkaiko Foru Aldundiaren sail eta erakundeen programa guztietan euskararen sustapenarekin, ingurumenaren iraunkortasunarekin eta berdintasunarekin erlazionatutako helburuak sartzea.
- Genero-eraginari buruzko aurretiazko ebaluazioa progresiboki aplikatzea bai sortutako araudian eta bai Aldundiaren menpeko sail eta erakundeen programa garrantzitsuetan.
- Euskararen eta iraunkortasunaren alorrean dauden betebeharrak indartzea, eta genero berdintasunarekin erlazionatuta dauden klausula sozialak ere bai, Aldundiaren eta bere menpeko erakundeen kontratazio publikorako prozesuetan.
- Noizean behin Aldundiak hiru helburu horien inguruan egindakoaren eragina neurtzen duen txosten bat ebaluatu eta argitaratzea.



4# TALDE GAITU, ZINTZO ETA KONPROMETITUA

Bizkaiarentzat dugun proiektua ez da ekimen pertsonalista bat. Prestatutako eta konprometitutako gizon-emakumeek osatutako talde bat aurkeztu dugu Batzar Nagusietan ahalduz izateko hautagai modura. Gure ideiak Bizkaiarentzako eta herritarrentzako arrakasta bilakatzeko gai den taldea da. Ahalduz nagusi aukeratzen badute, gure hautagai Unai Rementeriak ere Bizkaiko Foru Aldundirako kudeaketa taldea osatzeko pertsonarik aproposenak aukeratuko ditu.

Ondorengo profila izango dute pertsona horiek guztiek:

Gaitasun profesional handia.

Esperientzia handia kudeaketan, bai alor publikoan eta bai pribatuan.

Ezinbesteko baloreak, esate baterako esfortzua, talde lana eta entzuteko eta adosteko gaitasuna.

Zintzotasunaren aldeko konpromiso osoa eta jarrera etikoa Bizkaia zerbitzatzeko.

Bizkaiaren zerbitzura onena emango duen taldea.



ANA OTADUI
DURANGOALDEKO ZERREDA BURUA

UNAI REMENTERIA
BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIRAKO HAUTAGAIA



IBONE BENGOTXEA
BILBOKO ZERREDA BURUA

IMANOL PRADALES
ENKARTERRIKO ZERREDA BURUA



HACER CRECER **EUSKADI** HAZI ARAZI